

2022

Elikagaien xahuketaren analisia EUSKADIKO

LEHEN SEKTOREAN

Nekazaritza · Abeltzaintza · Arrantza

- AMAIERAKO TXOSTENA -



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE



Edukia

1. Testuinguruan jartzea.....	3
2. Helburuak	4
2.2 Helburu nagusiak.....	4
2.2 Proiektuaren helburu operatiboak	4
3. Definizioak.....	5
4. Metodologia.....	9
5. Emaidza kuantitatiboak eta kualitatiboak.....	14
5.1 Nekazaritza sektorean sortutako galeren eta elikagaien xahuketaren ehunekoaren emaitzak	14
5.1.A Nekazaritza sektorea.....	14
5.1.B Abeltzaintza sektorea.....	24
5.1.C Arrantza eta akuikultura sektorea	40
6. Ondorioak	43
Nekazaritza sektoreko galera-kopuruaren laburpena.....	43
Abeltzaintza sektoreko galera-kopuruaren laburpena.....	43
Arrantza sektoreko galera-kopuruaren laburpena	43
I. eranskina: galdetegi ereduak	45

1. Testuinguruan jartzea


Eusko Jaurlaritzak, Europako Itun Berdea sustatzeko, Basque Green Deal ekimena abian jarri du; horrek Euskal Autonomia Erkidegoak izango duen ibilbide-orria zehaztuko du, klima-krisialdiari irtenbide bat emateko eta garapen jasangarriago eta inklusiboago bat lortzeko. Ezarritako helburuen artean elikagaien xahuketa murriztea dago, NBEren ildo berean; izan ere, azken horrek, bere Garapen Jasangarrirako Helburuetan (12.3 helburua) proposatu du 2030. urterako “xehekako salmentari eta kontsumitzaileari dagokion biztanleko elikagaien xahuketa erdira murriztea, eta ekoizpen- eta hornidura-kateetan elikagaien galera murriztea”.

Euskal Autonomia Erkidegoa aipatutako xedera batu da eta Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzaren bidez eta ELIKA Fundazioak koordinatuta, abian jarri du Elikagaien Xahuketaren aurkako Ekintza Plan bat. Horren helburua izango da erronka bikoitz bati erantzutea: xehekako salmentari eta kontsumitzaileari dagokion biztanleko elikagaien xahuketa erdira murriztea eta ekoizpen- eta banaketa-kate osoan zehar elikagaien galera murriztea. Horrela, GJHen ildoan araberako egongo dugu lan.

Aipatutako xedea lortzeko, garrantzitsua da Euskal Autonomia Erkidegoaren abiapuntua zein den ezagutzea. Horretarako, ikerketa bat egiten hasi gara, euskal elikaduraren balio-kate guztian sortzen den elikagaien galera eta xahuketaren diagnostikoa egiteko. Hori egiteko Europar Batasunak ezarritako gidalerroak aintzat hartu dira, metodologia orokorrari eta elikagai-hondakinen neurketa uniformeak gauzatzeko gutxienezko kalitate baldintzei dagokienez.

Neurketa elikakateko honako fase hauetan bereizirik egin behar da: ekoizpen primarioa; eraldaketa eta ekoizpena; xehekako salmenta eta elikagaiak banatzeko beste modu batzuk; jatetxeak eta janari-zerbitzuak; eta, azkenik, etxeak. Horretarako, berezko metodologia bat garatuko da, lehenik, analisi kuantitatibo bat egin ahal izateko eta gertatzen diren galera eta xahuketak zenbatzeko. Bigarrenik, analisi kualitatibo bat egongo dugu, eraginkortasun hobea lortzeko. Hirugarrenik, baztertutako elikagaiei balio erantsia emateko modua zehaztuko dugu. Garatuko den ereduaren bidez, behar bezain bestetan konparatu ahal izango dugu balio-katearen hainbat mailatan gertatzen den elikagaien xahuketaren garapena denboran zehar. Era berean, hori Europa zein estatu mailako datuekin konparatu ahal izango dugu. Amaitzeko, ereduak definizioei bideratutako atal bat izango du; eta bertan, besteak beste, elikagaien xahuketa eta galerak zer diren jasoko da.

Lehenengo fase honetan elikaduraren balio-kateko lehenengo bi mailetako elikagaien xahuketa neurtuko da; hau da, neurketa ekoizpenaren eta eraldaketaren sektorean. Bi sektore horietako ekoizpena elikaduraren balio-katearen % 30 ekoizten dela aintzatesten da.

Xahuketa sektore bakoitzeko

1. irudia. Iturria: Food waste quantification manual to monitor food waste amounts and progression, 2016.

Diagnostikoa egiteko lantaldea honako hauek osatu dute: HAZI, NEIKER, AZTI, IHOBE, Euskadiko Elikaduraren Klusterra eta ELIKA. Horiek guztiek erabaki dute beharrezkoa dela inkesta bat egitea, zuzeneko informazioa jasotzeko eta diagnostikoa Europako metodologiaren jarraibideen arabera egiteko.

2. Helburuak

Proiektuaren helburua da Euskadin lehen eta bigarren sektoreko xahuketaren diagnostikoa egitea, EBk xedatzen duenaren arabera urtero errepikatzeko.

2.2 Helburu nagusiak

Diagnostikoa honako helburu hauen arabera diseinatu eta egingo da:

- Elikagaien xahuketa neurtzeko eta kontrolatzeko Europako gidalerroak betetzea
- Elikagaien xahuketaren arazoa bolumenaren arabera kalkulatzeko, eta ekonomia eta gizartearen arabera ere, posible bada. Xahuketak industrian, ingurunean eta gizartean duen eragina ebaluatzea.
- Elikagaien xahuketaren foku nagusiak identifikatzea
- Neurketaren kalitatea bermatzea, ebaluazioa elikagaien xahuketa eta Euskal Estrategiaren eraginkortasuna monitorizatzeko xedez.

2.2 Proiektuaren helburu operatiboak

Lan-proposamenaren helburuak honako hauek dira:

- EAEn sortutako elikagaien xahuketaren diagnostikoa diseinatzea eta egitea, eta ekonomian, gizartean eta ingurunean duen inpaktua eta hori murrizteko aukerak zehaztea.
- Elikagaien xahuketari buruzko datuak jasotzeko, biltegitatzeko, sailkatzeko eta aztertzeko sistema/tresna bat diseinatzea eta martxan jartzea, bai eta informazioaren digitalizatutako jarraipena egitea ere.
- Elikagaien xahuketa murrizteko elikagaien sektorean ekimen garrantzitsuei lehentasuna ematea.
- Ekoizpen-sistemetan hobekuntzak ezartzea eta negozio-nitxo berriak bilatzea elikagaien hondakinak eta/edo azpiproduktuen erabilerari lotuta.
- Xahuketaren benetako iturriak eta kausak xehetasunez zehaztea.
- Izaera politikoko, ekonomikoko, merkatuko, legezko eta sanitariozko zailtasunak gainditzen laguntzea, bai eta elikagaien xahuketa murriztean interesa duten eragileei lotutakoak ere.
- Elikagaien xahuketaren murrizketarako hobekuntza zehaztea, inpaktua areagotzeko ahalegina murriztuz.

Laburbilduz, diagnostiko horiek abiapuntu gisa erabili nahi dira (gainerako mailetako informazioarekin batera) Elikagaien Xahuketaren aurkako Euskal Estrategia zorrotz aplikatu ahal izateko.

3. Definizioak

Elikagaiei buruzko legeriaren betekizun orokorrak eta printzipioak ezartzen dituen, eta Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaritza sortzen duena eta elikagaien segurtasunari buruzko prozedurak ezartzen dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 178/2002 Erregelamenduaren arabera, «elikagaia» da gizakiek irensteko moduko edozein substantzia edo produktu, edo elikagai izateko arrazoizko probabilitatea duena, osorik edo partzialki eraldatuak izan zein ez. «Elikagaiak» barne hartzen ditu edariak, mastekatzeko goma eta edozein substantzia, baita ura ere; borondatez sartzen da elikagaian fabrikazioan, prestaketan edo tratamenduan. 98/83/EE Zuzentarauko 6. artikuluan zehaztutako betetze-puntuaren ondoren sartuko da ura, 80/778/EEE eta 98/83/EE Zuzentarauean ezarritako betekizunei kalterik egin gabe. «Elikagaiak» ez ditu barne hartzen:

- a) pentsuak;
- b) animalia bizidunak, giza kontsumorako merkaturatzeko prestatuta daudenean izan ezik;
- c) uzta aurreko landareak;
- d) sendagaiak, Kontseiluaren 65/65/EEE eta 92/73/EEE zuzentarauek definitzen dituzten moduan.
- e) kosmetikoak, Kontseiluaren 76/768/EEE Zuzentarauek definitzen dituen moduan;

- f) tabakoa eta tabakoaren produktuak, Kontseiluaren 89/622/EEE Zuzentarauak definitzen dituen moduan;
- g) substantzia estupefazienteak edo psikotropikoak, 1961eko estupefazienteei buruzko Nazio Batuen Konbentzio Bakarrak eta 1971eko Substantzia Psikotropikoei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenak definitzen dituzten moduan;
- h) hondakinak eta kutsatzaileak.

Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundearen (FAO) arabera, elikagaien xahuketa terminoa bi kontzeptutan banatuta dago: Elikagai-galera (food loss) eta Elikagaien xahuketa (food waste).

Ilido horretan, elikadura-galerak nekazaritzako elikakatearen lehen etapetan gertatzen direnak izango lirateke, hau da, ekoizpenaren eta eraldaketaren sektoreak, horien barruan elikagaien uztatzea, prozesatzea eta biltegitratzea barne hartuta. Elikagaien galerek prozesu klimatikoak eta ingurumenekoak izango lituzkete, iragarpen zailekoak, bai eta bestelako ustekabeko kausak ere, aipatutako etapetan, oro har erabilitako teknologia eta azpiegiturei lotuta. Halaber, kategoria horren barruan egongo lirateke ekonomia- eta legegintza-kausak, hala nola kalitate-estandarren eta estetikoaren ondorioz sortutako elikagaien galerak.

Bestalde, elikagaien xahuketak katearen azken etapetan egongo litzateke, hau da, banaketan eta kontsumoan. Horren jatorria, funtsean, eta definizio horren arabera, inplikaturako eragileen erabaketan dago, non pertsonak kontsumitu ditzaketen elikagaiak baztertu eta hondakin gisa kudeatzen diren. Elikagai-galerak eta elikagaien xahuketak elikagaien zati jangarriari bakarrik egiten diote erreferentzia.

Bestalde, Europako Fusions proiektuak emandako definizioak ez du kontuan hartzen xahuketak eta galerak bereiztea, baizik eta guztiak sartzen dira elikagaien xahuketa (food waste) kontzeptu beraren barruan. Kontzeptu hori honela definitzen da: edozein elikagai (jan ezin daitezkeen elikagaiaren atalak barne, konpost gisa berrekuratzeko elikakateetik baztertuak izan direnak); bildu gabeko kultibo heldu, digestio anaerobiko; ekoizpen energetiko; kogenerazio; errausketa; eta estalda-saretik, zabortegira edo itsasora botatutako edozin substantzia. Definizio horren barruan, berezitasun nagusietako bat da abereentzako elikadurara bideratutako produktuak ez liratekeela elikagaien xahuketatzat hartuko, ezta elikagaiak prozesatzean eta manufacturatzean sortutako azpiproduktuak ere. Aurreko kapituluan aztertu zen moduan, definizio horrek uzta biltzeko bezain helduak dauden, baina hainbat arrazoirengatik bildu ez diren elikagaiak barne hartzen ditu.

Europako Batzordearen BIOS txostenaren arabera, elikagaien xahuketaren definizioa honako hau da: elikagaiez (gordinak edo prozesatuak) osatutako edozein xahuketa, etxeetan prestatu aurretik, prestatzean, edo prestatu ostean, eta manufactura, banaketa eta elikaduraren beste zerbitzu batzuetako prozesuetan, kontsumo fasean. Definizio horrek bat egiten du FUSIONS proiektuaren ikuspuntuarekin, ez baititu elikagaien xahuketatzat hartzen azken helmugatzat animalien elikadura duten

elikagaiak; baina bere berezitasun nagusia da ez dela ekoizpen-sektorea sartzen nekazaritzako elikagaien kate osoan zehar sortutako xahuketa zenbatzerako orduan.

Bestalde, Europako Batzordearen 2017/C 361/01 Jakinarazpenaren arabera (EBren orientabideak elikagaien dohaintzari buruz), elikagai-soberakin hauek daude: amaitutako elikagaiak (haragi freskoa, fruta eta barazkiak barne), partzialki formulatutako produktuak edo elikadura-osagaiak, hainbat arrazoirengatik elikagaien ekoizpen- eta banaketa-katearen edozein fasetan gerta daitezkeenak. fabrikatzailearen edo bezeroaren zehaztapenetara egokitzen ez diren elikagaiak (adibidez, produktuaren koloreen, tamainaren, formaren eta abarren arteko aldeak) eta ekoizpen- eta etiketatze-akatsek, adibidez, soberakinak sor ditzakete nekazaritza- eta manufaktura-industrian. Eskaintza eta eskaria kudeatzeko zailtasunek eskaera gehiegi egitea edo bertan behera uztea ekar dezakete. Iraungitze-data eta kontsumo lehenetsiaren data adieraztearekin zerikusia duten zenbait gaik, hala nola produktuak banaketan geratzen den bizitza eskasak edo lehentasunez kontsumitzeko data igarota duten elikagaiak birbanatzea debekatzen duten arau nazionalek, eragotzi egin dezakete elikagaiak ohiko sektore minoritarioen bidez saltzea eta banatzea. Elikagai-soberakinak birbanatu ahal izango dira, baldin eta giza kontsumorako egokiak badira eta elikagaien segurtasun-baldintza guztiak betetzen badituzte, elikagaien segurtasunari eta kontsumitzaileentzako elikadura-informazioari buruzko EBren arauetan zehaztutakoaren arabera, bai eta dagozkion arau nazionaletan zehaztutakoaren arabera ere.

2008/98/EE Zuzentarauak honako hauek bereizten ditu: 1) Hondakina: edukitzaileak utzitako edo uzteko asmoa edo obligazioa duen edozein substantzia edo objektua; 2) Biohondakina: lorategi eta parkeetako hondakin biodegradagarriak, janari-hondakinak eta etxeetako sukaldeetako hondakinak, jabetxeetakoak, jabetxe-zerbitzu komunitarioetakoak eta txikizkako kontsumo-establezimenduetakoak, eta elikagaiak eraldatzeko lantegietako hondakin alderagarriak; 3) Azpiproduktua (koproduktua): ekoizpen-prozesu baten ondoriozko materia, substantzia edo objektua, baldin eta haren helburu primarioa ez bada materia, substantzia edo objektu hori sortzea. Gainera: a) ziur dago substantzia edo objektua geroago erabiliko dela; b) substantzia edo objektua zuzenean erabil daiteke, gerora industria-jarduera normalaz bestelako eraldaketarik jasan behar izan gabe; c) substantzia edo objektua ekoizpen-prozesu baten zati gisa sortzen da; eta d) gerorako erabilera legezkoa da, hau da, substantziak edo objektuak produktuei eta ingurumenaren eta osasunaren babesari buruzko aplikazio espezifikorako beharrezkoak diren baldintza guztiak betetzen ditu, eta ez du eragin kaltegarrikerik eragingo ingurumenean edo giza osasunean

Bestalde, 1069/2011 Erregelamenduak zehazten du SANDACH azpiproduktu bat dela giza kontsumorako ez diren animalien gorputz osoak edo zatiak, animalia-jatorriko produktuak edo animalietatik lortutako beste produktu batzuk, oozitoak, enbrioiak eta esperma barne.

Azkenik, eta gaur egun finkatu gabeko araudia den arren, adierazi behar da Elikagai-galerak eta xehuketa prebenitzeko lege-aurreproiektuan honako definizio hauek

jasotzen direla: 1) Elikagaien xahuketa: elikakateetik baztertutako nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuak, giza kontsumorako guztiz jangarriak eta egokiak izaten jarraitzen dutenak, eta, bestelako erabilerarik ezean, hondakin gisa baztertuak amaitzen dutenak. 2) Elikagai-galerak: nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuak edozein arrazoiengatik nekazaritza- edo abeltzaintza-ustiategian bertan geratzen direnak, lurzorura itzultzen direnak edo hondakin gisa in situ konposta egiteko erabiltzen direnak, eta azken helmugatzat giza elikadura dutenak.

Informazio hori oinarri hartuta, azterlan honen diagnostikoaren irismena definitu da. Azterlan hori “elikadura-hondakinaren” eta “elikagaien xahuketaren” diagnostikoan oinarritu da, jarraian definituko den moduan.

- Elikagai-hondakina (2008/98/EE Zuzentarauaren arabera): edukiztaileak utzitako edo uzteko asmoa edo obligazioa duen edozein elikagai. Hemendik aurrera, “elikagaien xahuketaren zati ez jangarria” deituko zaio.

- Azterlan honetan jarraitu den elikagaien xahuketaren kontzeptuari dagokionez, guztiz bat etorri nahi izan da eskuordetutako erabakiarekin, aipatutako Europako arauditik datorren “elikagaiak” definizioan oinarrituta, zeinak funtsezko ezaugarri hauek izango baititu:

- Jatorriz giza kontsumorako diren elikagaiak.
- Zati jangarriak zein ez jangarriak ditu.
- Nekazaritzako elikakate osoa hartzen du, eta horren hasiera dagoeneko bildutako produktuak izango dira, aurreko faseak alde batera utzita. Gainera, azterlan honetarako, uzta biltzeko bezain helduak dauden, baina hainbat arrazoiengatik bildu ez diren elikagaiak sartu dira.
- Azken helmuga aprobetxamendu ekonomiko handia duten elikagaiak, bereziki azpiproduktu edo animalia-elikadura gisa erabilia, kontzeptu horretatik kanpo geratuko dira, bereziki katearen lehen etapetan.
- Ez da elikagaien “galeren” eta “xahuketaren” arteko bereizketarik egiten; aitzitik, elikagaien “xahuketaren” kontzeptupean biltzen da guztia.

Bestalde, Europako Batzordearen Eskuordetutako Erabakiak elikagaien xahuketari buruz sustatutako definizioa jarraitu arren, azterlan honek, eta EBren barruan arlo horretan garrantzitsuenak diren erakundeek emandako gomendioei jarraituz (Batzordearen beraren Joint Research Centre barne), elikagaien xahuketatzat jo denari buruzko informazioa biltzeaz gain, beste fluxu batzuk ere biltzen ditu. Fluxu horiek nahiz eta ez lirateekin talde horretan sartuko, azken kudeaketari edo hondakin gisa ulertzeari dagokionez ere hobekuntzak izan litezke, baliabide baten ordeztu, Ekonomia Zirkularraren paradigmaren ildotik. Azpiproduktuen eta animalien elikadurara bideratutako kasuak nabarmentzen dira bereziki, fluxu horiek aztertzeke eta fluxu horien kudeaketa hobea egin daitekeen zehazteke, ingurumenari, gizarteari eta ekonomiari dagokienez.

Ildo horretan “aprobetxatzeko moduko materiala” (AMA) terminoa sortu da, ekoizpen primarioan eta manufakturan identifikatutako fluxuetarako, elikagaien xahuketaren kontzeptutik kanpo geratzen badira, baina interesgarritzat jotzen da horiek kuantifikatzea, gero aprobetxamendua hobetzeko aukerak ebaluatzeke, elikagaien

xahuketaren aurkako euskal estrategiaren elikagai-soberakinen hierarkiarekin bat etorritik.

Azken, eta Ekoizpen Primarioaren fasean bakarrik, kontzeptu berri bat erabili da: “Bildu gabeko eta kontsumorako egokia den materiala”. Europako Batzordeak ez du inolako definiziorik erabili uzta-prozesuan bildu gabe edo baztertuta geratzen diren fluxuak aipatzeko.

4. Metodologia

Aurretik komentatu dugunaren arabera, hasiera batean lehen sektorea eta eraldaketaren industria (aurrerantzean EEI) landuko dira; izan ere, FAOren arabera, elikakatearen xahuketa guztiaren % 30 dira.

Maila horiek aztertzeko, 1. Lantaldearen (Informazio- eta datu-iturriak) barruan, honako eragile hauek parte hartu zuten: ELIKA, HAZI, NEIKER, AZTI eta Basque Food klusterra. Hasierako bilerak operatiboagoak egiteko xedez, nekazaritza sektorea ELIKAK, HAZIK eta NEIKERek dinamizatu zituzten, eta EEI eta arrantzena, berriz, ELIKAK, HAZIK, AZTIK eta Klusterrak. Hala, neurketarako estrategia bi alde desberdinetatik abiarazi zen, azpisektore bakoitzeko berezitasunak eta beharrak jasotzeko.

Oinarrizko dokumentua Batzordearen 2019/1597 (EB) Erabaki Eskuordetua izan da. Bertan, elikakatearen elikagai-hondakinen kopurua neurtzeko elikagaigintzako ustiategi/enpresen lagin batek sortutako hondakinak neurtuko direla zehazten da, jarraian zehazten diren metodoen, metodo horien konbinazio baten edo egokitasunaren, ordezkagarritasunaren eta fidagarritasunaren ikuspegitik baliokidea den beste edozein metodoen bidez.

Elikakatearen fasea	Neurketa-metodoak				
Lehen mailako ekoizpena	Neurketa zuzena	Masa-balantzea		Galdetegiak eta elkarrizketak. Ekoizpenaren koefizientea eta estatistikak. Hondakinen konposizioaren analisia.	
Eraldaketa eta ekoizpena				Hondakinen konposizioaren analisia	Zenbaketa/eskaneatzea
Txikizkako salmenta eta elikagaiak banatzeko bestelako moduak		Erregistroak			
Jatetxeak eta janari-postuak					
Etxeak					

Proiektua egiteko *galdetegiak eta elkarrizketak* egin ziren, eta *ekoizpenerako koefizienteak eta estatistikak* erabili ziren (inkestak betetzeko eta datuak EAEren mailara hedatzeko).

Jarrarian, azpisektoreetako bakoitza osatzen duten jarduketak daude adierazita. Nekazaritza sektorea: zerealak, baratzezaintza, beste laborantza iraunkor batzuk (fruta-arbolak eta olibadiak barne hartzen dituena), gainerako laborantza estentsiboak eta mahastizaintza. Abeltzaintza sektorean: hegazti erruleak, gizentzeko hegaztiak, haragitarako behiak, esne-behiak, kunikultura, zaldiak, ardiak, ahuntzak eta txerriak.

Nekazaritza sektorean (nekazaritza eta abeltzaintza) arreta jarri zen ekoizpen-mailan pisu handiena duten jardueretan; izan ere, horietan xahuketa handiagoa sortzeko aukera dago eta horien xedea gizakion elikadura da.

Aipatutako lehenengo eta bigarren irizpideei jarrikiz, laginetik baztertu egin ziren honako hauek: zerealak, kunikultura, zaldiak eta txerriak. Lagina kalkulatzeko honako formula hau erabili zen:

$$n = N / \left(1 + \frac{\text{error}^2 (N-1)}{Z^2 (p * q)} \right)$$

n: Laginaren tamaina.

N: Populazioaren tamaina.

Z: Konfiantzaren maila (% 93).

p: Populazioan ikertu beharreko ezaugarria duten pertsonen proportzioa (p=q=0,5).

q: Ezaugarri hori ez duten pertsonen kopurua; hots, 1-p.

errorea: Errorea (% 7).

Jarraian adierazitako taulan ikus daiteke nekazaritza sektorea osatzen duten azpisektoreetako bakoitzaren banaketa:

Nekazaritza sektorea (ustiategi-kop.)		
Azpisektorea	Guztira	Lagina
Gizentzeko hegaztiak	66	12
Hegazti erruleak	542	14
Haragitarako behiak	2.312	16
Esne-behiak	348	
Zerealak	577	-
Kunikultura	30	-
Zaldiak	2.147	-
Baratzezaintza	1.630	24
Beste laborantza iraunkor batzuk (fruta-arbolak edo olibadiak)	2.894	14
Ardiak eta ahuntzak	3.954	13
Txerriak	93	-
Gainerako laborantza estentsiboak	422	18

Errioxako mahastizaintza	1.746	17
Txakolinaren mahastizaintza	376	15
Guztira	17.137	144

Lagina hautatzeko, tamainaren arabera sailkatu zen ustiategi/establezimenduetako bakoitza (txikia, ertaina eta handia). Beraz, azpisektore, tamaina, eta posiblea den heinean, lurraldearen arabera adierazgarria izateko hautatu zen lagina. Nekazaritza sektorean ustiategiaren tamaina zehazteko irizpidea urteko ekoizpena (fakturazioa) izan da; izan ere, tamaina txikia duten enpresak direnez, enplegua ez da adierazgarria. Honako hauek izan dira fakturazio-tarteak. Ustiategi txikia: <7.500 €/urte; ertaina: 7.500-30.000 €/urte; handiak: >30.000 €/urte. Hortaz, laginaren banaketa honako hau da:

Azpisektorea	ARABA			BIZKAIA			GIPIZKOA			Guztira
	Txikia	Ertaina	Handia	Txikia	Ertaina	Handia	Txikia	Ertaina	Handia	
<i>Gizentzeko hegaztiak</i>		1			1	3		4	3	12
<i>Hegazti erruleak</i>			3	1		5			5	14
<i>Esne-behiak</i>			2	1	2	3	1	3	4	16
<i>Zerealak</i>			1							1
<i>Baratzezaintza</i>	1	3	4	2	3	3	1	4	3	24
<i>Beste lab. Iraunk. (fruta-arbolak edo olibadiak)</i>		2		1	1		1	7	2	14
<i>Ardia-ahuntza</i>		1	2	1	1	2	2	2	2	13
<i>Gainerako laborantza estentsiboak</i>		2	16							18
<i>Errioxako mahastizaintza</i>	2	4	11							17
<i>Txakolinaren mahastizaintza</i>	1	1	2	2	1	2		3	3	15
<i>Guztira osotara</i>	4	14	41	8	9	18	5	23	22	144

Ordezkaritza esanguratsua lortzearren, tamaina handiko eta ertaineko ustiategiei eman zaie garrantzi gehien.

Arrantza sektorean itsasoko arrantza, itsas akuikultura eta ur gezatako akuikultura hartu ziren. Azpisektore bakoitzaren banaketa honako taula honetan agertzen da:

Arrantza sektorea (ontzi-kop.)		
Azpisektorea	Guztira	Lagina
Altura Freskoan	16	7
Atunketari izoztailea	26	14
Bakailao-ontzia	2	1
Itsasbazterreko arrantza	152	11
Akuikultura	7	3
Guztira	203	36

Lagina eskuratzeko Lurralde Historiko bakoitzeko ordezkapena kontuan hartu da, eta honako hau da emaitza:

Azpi-sektorea	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Akuikultura	1	1	1	3
Altura Freskoan		7		7
Atun-izoztailea		14		14
Bakailao-ontzia			1	1
Itsasbazterreko arrantza		5	6	11
Guztira	1	27	8	36

Laburpen gisa, eta aipatutako informazioa kontuan hartuta, honako hau da laginaren banaketa sektore bakoitzeko:

	Nekazaritza sektorea	Abeltzaintza sektorea	Arrantza sektorea	Guztira
Azterketa-eremua	7.645	9.492	203	17.340
Inkesta kopurua (lagina)	89	55	36	180
Egindako inkestak	42	41	14	97
Egindako inkestak (%)	47,2	74,5	38,9	53,89

Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza sektorean sortzen diren galerak eta elikagaien xahuketa neurtzeko, erdiegituratutako galdetegi bat egin zen, xede den sektorearen arabera. Hortaz, antzeko hiru galdetegi egin ziren: nekazaritzara, abeltzaintzara eta arrantzara bideratutakoak.

Galdetegi guztietan 4 atal daude, eta bertan galdera irekiak eta itxiak daude, informazio kuantitatiboa eta hautemate kualitatiboak jasotzea ahalbidetuko dutenak:

- 4 galdetegiek atal bateratu bat dute, *Establezimendu edo ustiategien datuei* buruzkoa, eta enpresa eta ustiategiak jardueraren, tamainaren eta jarduera gauzaten duten lurralde historikoaren arabera sailkatzeko aukera emango du.
- Deialdiaren bigarren atala *Datu produktiboak eta establezimendu/ustiategiaren tamaina* da; bertan, datu kuantitatibo produktiboen arabera sailkatu daitezke (hektareak, ekoizpena, abere-kopurua, etab.).
- Elikagaien xahuketen eta azpiproduktuen inguruko datuak galdetegiaren hirugarren atalean jasotzen dira. Galdera horiek sortzen diren galerak sailkatu eta kuantifikatzeko aukera emateaz gain, beste alderdi batzuk ere hartzen dituzte aintzat, besteak beste: urtarokotasuna, egiten den kudeaketa-mota, xahuketaren/azpiproduktuaren amaierako erabilera eta, azkenik, xahuketak/azpiproduktuak kudeatzeko dauden arazoaren identifikazioa. Atal horretan, elikagaiaren xahuketaren neurketa kuantitatiboa ezagutu ahal

izango da eta dauden arazoak ikusi ahal izango dira, baita jarduketa-eremu posibleak ere.

- Azkenik, galdetegian Elikagaien xahuketa kudeatzeko aurretiazko edo egungo esperientziak izatea atala dago. Informazio horri esker, jakin ahal izango dugu zein jarduera-eremutan gauzatu diren aurretiazko esperientziak, eta arrakastarik izan duten.

Galdetegi bakoitza I. ERANSKINEAN ikus daiteke zehatzago. Galdetegiak.

Galdetu beharreko jarduera nagusiak erabaki ondoren, eta fokua non jarri nahi dugun argitu ondoren, erabaki genuen inkestak desberdin bidaliko zirela sektore bakoitzean. Nekazaritza eta arrantza sektoreen kasuan, azalpen-gutun bat bidali zen korreoz, eta bertan plataformara sartzeko datu pertsonalizatuak zeuden. Hortaz, ustiategi/establezimendu bakoitzak erabiltzaile eta pasahitz bakarra zuen plataformara eta galdetegira sartzeko, eta, hortaz, modu autonomoan betetzeko aukera zuten.

Hala ere, eta xahuketaren problematika hurbiltzeko, proiektuaren arrazoiaren zergatia azaltzeko eta galdetegiaren zailtasuna kontuan hartuta, hilabete batez inkestagileen laguntza jaso genuen. Hilabete horretan zehar ustiategi eta enpresa guztiekin harremanetan jarri ziren. Telefono bidezko lan hori hobeto egiteko, inkestatzaileei prestakuntza eman genien, besteak beste sektore bakoitzeko berezitasunak ezartzeko eta galdetegiaren gai garrantzitsuak finkatzeko. Horren xedea inkestatzaileen lana eraginkorragoa eta estandarizatuagoa izatea zen. Horretarako, honako alderdi hauek jorratu ziren:

- Proiektuaren jatorria, motibazioa eta xedea.
- Kontzeptu orokorra eta elikagaien xahuketaren kontzeptua, Erabaki Eskuordetuaren (Europako Batzordea) eta beste definizio gehigarri batzuen arabera. Horren barruan, xahuketa jangarria eta ez jangarriaren artean desberdindu zen.
- Elikagaien xahuketari buruzko zifra baliagarri batzuk, orokorrean.
- Erabili eta saihestu beharreko terminologia herritarrekin hitz egiterako orduan. Hizkera inklusiboa.
- Erantzunak estandarizatzeko eta areagotzeko aldera, galdera sentikor eta garrantzitsuenen analisia.
- Azpisektore bakoitzeko berezitasunak eta xahuketa sortzeko arlo posibleak.
- Inkestak egiteko dokumentazioa.
- Zalantza eta gai gehigarriak erantzutea.

Inkesten fasea hasi ondoren, HAZI Fundazioko langile teknikoek laguntza jarraia eskaini ziguten telefono bidezko deiak egin bitartean sortu ziren zalantzak eta

arazoak argitzeko. Inkesten aldia bukatu ostean, oso garrantzitsua izan da datuak baliozkotzeko lana. Aldi horretan ustiategi/enpresetara deitu behar izan dugu daturen bat falta bazen edo inkongruentziaren bat hautematen bazen. Halaber, datuak beste azterlan batzuetako datuekin alderatu dira. Horretarako, Neurketarako Lantaldearen azpisektoreetako adituen ikuspegia eta ezagutza ezinbestekoa izan da.

5. Emaidza kuantitatiboak eta kualitatiboak

5.1 Nekazaritza sektorean sortutako galeren eta elikagaien xahuketaren ehunekoaren emaitzak

Nekazaritza sektorean (nekazaritza eta abeltzaintza), arreta ekoizpen-mailan garrantzia handiena duten jardueretan jarri da, hain zuzen ere, hondakinak sortzeko aukera handiagoa den eta xedea gizakion elikadura den haietan.

Aipatutako lehenengo eta bigarren irizpideei jarraikiz, laginetik baztertu egin ziren honako jarduera hauek: kunikultura, zaldiak eta txerriak. Ondorioz, honako nekazaritza-jarduera hauek izan dira aztergai: zerealak, baratzezaintza, beste labore batzuk (fruta-arbolak eta olibadiak barne hartzen dituenak), gainerako laborantza estentsiboak eta mahastizaintza nekazaritza sektorean. Abeltzaintza sektorean, berriz: hegazti erruleak, gizentzeko hegaztiak, haragitarako behiak, esne-behiak, eta ardiak eta ahuntzak. Sektore bakoitzeko kasuistika hobeto ulertzeko eta azaltzeko, analisia azpisektoreen arabera egingo da abeltzaintza sektorean.

5.1.A Nekazaritza sektorea

Jarduera: Laborantza estentsiboa (hainbat OTE hartzen ditu barne)

Laborantza estentsiboko 16 ustiategitan egin da inkesta, eta honako hauek dira labore nagusiak: patata (% 69), garia (% 56), garagarra (% 44) eta erremolatxa (% 31). Neurri apalago batean, beste hainbat zereal lantzen dira, hala nola oloa eta zekalea (% 19), babarrunak (% 13) edo ekilorea (% 6). Inkesta egin den azaleraren hedapena 1.151 ha-koa izan da, eta ekoizpen-errendimendua, gutxi gorabehera, honako hau da: 1.950 kg babarrun/ha, 5.200 kg zereal/ha, 2.140 kg ekilore/ha, 33.500 patata/ha eta 104.200 kg erremolatxa/ha.

Inkesten arabera, jarduerak honako azpiproduktu hauek sortzen ditu:

- Uzta bildu aurretik produktua ukatzea/galtzea
Galdetutako ustiategietatik zazpik garagar, gari, babarrun, patata eta ekilore laboreak dituzte, eta uzta bildu aurreko galderak dituzte klimatologiak eraginda. Hortaz, azpiproduktua lurtean gelditzen da. Kategoria horretan daude, batez beste, galera gehien (% 13,6 azpiproduktu, kategoriaren ekoizpen osoari dagokionez). Babarrun laborearen duen ustiategi baten galera-ratioa % 70ekoa da urteko ekoizpenari dagokionez; hori akats baten edo euriaren eraginez kanpaina ezohikoaren ondorioz gerta daiteke.

Denek uste dute azpiproduktua ez dela erabiltzen eta ez dakarrela kostu edo diru-sarrerarik, batek izan ezik. Horrek kostua dakarrela uste du, baina ekoizpen totalari dagokionez % 1eko azpiproduktua dauka.

- Uzta biltzean produktua ukatzea/galtzea

Zereal, babarrun, patata eta erremolatxa laboreak dituzten hamaika ustiategiren ustez galerak dituzte uzta bildu bitartean. Galera horiek kanpaina guztietan gertatzen dira eta azpiproduktua lurlean geratzen da. Ez dira baliatzen, eta kategoria horretako ekoizpenaren % 5,1 dira. Galdetutako batek erantzun du azpiproduktu horren galera biltegitratzean eta/edo garraiatzean gertatzen dela, eta % 0,2ko galerak eragiten dituela, azken produktuaren galera kategoriaren barruan kontuan har daitezkeenak.

Denek uste dute ez duela ez kosturik ez diru-sarrerarik eragiten, eta problematikei dagokienez, ia guztiak prozesu eta mantentze ez eraginkorrak dira.

- Azken produktua ukatzea/galtzea

Galdetutako ustiategietako batek azpiproduktu gisa aipatu du “elkagaien bankuari patatak oparitzea”, eta kategoria honen barruan sartu dugu azken produktua delako.

Guztira, zereal, babarrun, patata eta erremolatxa laboreak dituzten ustiategietako hamabik uste dute azken produktuan galerak dituztela, eta kategoria honetan patata-galerak aipatu dituzte (bederatzi ustiategitan).

Azken produktuen galera azpiproduktu kategoria honen ekoizpen totalaren % 4,5 da. Kausa nagusia da ez dutela kalitate-estandarra betetzen (erantzunen % 80), eta, neurri txikiago batean, galerak daudela gordetzean edo garraiatzean.

Orokorrean, ustiategian bertan baliatu ohi da, eta galdetutako bik enpresa balorizatzaile bati ematen diote. Amaierako helburua, nagusiki, animaliak elikatzea da (erantzunen % 47). Horrek kategoria honen azpiproduktuaren % 2,6 eragiten du, baina, hala ere, ez da baliatzen (% 20), eta elkagaien bankura edo ongari gisa erabiltzen dela aipatu da. Bi kasutan kooperatibak gorde eta kudeatzen du.

Baliatu edo kooperatibak kudeatzen ez dituen kasuetan, 4 ustiategi daude patata eta babarrunekin. Hori elkagaien xahuketatzat hartuko litzateke eta kategoria horretako galeren % 1,7 eragiten du.

Azpiproduktuaren kudeaketan edo xahuketan dauden arazoaren artean, kontrol jarraiak eta prebentziozko kontrolak aipatu behar ditugu. Halaber, horren nabarmena ez den arren, eraginkorrak ez diren prozesuak eta mantentzea aipatzen da. Guztiek uste dute, bik izan ezik, ez duela ez kosturik edo onurarik eragiten. Produktua garagarra den eta xedea animalien elikadura den bi ustiategietan uste dute diru-sarrerak eragiten dituela, azpiproduktua animalien elikadurarako saltzen baitute.

- Produktuaren hondakinak

Ustiategi batek soilik aipatu du galerak izan dituela produktuen hondakinengatik (garia kasu honetan), % 5 ekoizpen osoari dagokionez, hain zuzen ere. Hondakinak klimatologiaren ondorioz sortzen dira eta azpiproduktua lurrian geratzen da; hortaz, uzta bildu aurretiko galeren kategorian sar daiteke. Bere ustez, kostua da produktibitatea galtzen delako.

Labore estentsiboetan galerak daude kanpaina guztietan; udako hilabeteetan (ekaina, uzta, abuztua) zerealen kasuan eta udazkenean (iraila, urria, azaroa) patataren, babarrunaren eta erremolatxaren kasuan. Ekilorearen galerak (ustiategi bakarra) maiatzean gertatzen dira.

Labore estentsiboko azpisektorean:

SORTZEA ERAGITEN DUEN KAUSA	
Bilketan edo ekoizte-prozesuan galtzea	% 50,00
Kalitate-estandarrak ez betetzea	% 20,69
Kalteak produktuan	% 18,97
Biltegiatzean galtzea	% 6,90
Beste batzuk	% 3,45
Ekoizpen-soberakinak	% 0,00
Legedia	% 0,00

KUDEAKETA MOTA	
Beste batzuk (landara, estolderiara... botatzea)	% 92,00
ENPRESA BALORIZATZAILE BATI ematea	% 4,00
USTIATEGIAN BERTAN baliatzea	% 4,00
HONDAKINEN KUDEATZAILE BATI ematea	% 0,00
UDAL-ZERBITZUEK jasotzea	% 0,00


AMAIERAKO HELMUGA.	
Ez da baliatzen	% 76,36
Animaliak elikatzea	% 14,55
Beste batzuk (erre egiten da...)	% 3,64
Elikagaien bankuak	% 3,64
Ongarriak	% 1,82
Konposta egitea	% 0,00
Balio erantsiko osagaiak ateratzea	% 0,00

Laburpena

- Oro har, uztan sortutako galerak baino ez dira hondakintzat hartu, eta patata eta babarrun laboreetan, berriz, azken produktutzat, gizakiek kontsumitzeko elikagaia baita. Zereal, ekilore eta erremolatxa galerak ez dira elikagaien xahuketatzat hartu nekazaritza-etapan.

- Uzta bildu aurretiko galerak ez dira elikagaien xahuketatzat hartu, izan ere, azterlan honetan ez dira giza kontsumorako elikagaitzat hartu.
- Uztan zehar sortzen diren galeren artean, % 0,9 patata eta babarrunak dira; hortaz, elikagaien xahuketatzat hartu dira giza kontsumorako elikagaia baita.
- Azken produktuaren galeren % 1,7 patata eta babarrunak dira, baliatzen ez direnak edo kooperatibak kudeatzen dituenak. Ez dakite ziur zer egiten den, hortaz, giza kontsumora bideratutako elikagaia denez, elikagai xahuketatzat hartu izan da.

Eskema



Jarduera: Negutegi azpiko baratzeak

Negutegi azpiko lau ustiategitan inkesta egin da. Kontuan hartu dira “negutegi azpiko baratzea” jarduera markatu duten ustiategiak, bai eta galdetegian ekoizpen-sisteman “berotegian” markatu dutenak.

Honako hauek dira negutegian lantzen diren produktuak: Tomatea (galdetutako ustiategien % 100), letxuga (ustiategien % 50) eta piperra (ustiategien % 25), eta ustiategi bakar baten kasuan tomatea, letxuga eta kuia. Kontuan hartutako azalaren errendimendu produktiboa 6,16 ha-koa izan da gutxi gorabehera: 34.500 kg tomate/ha, 4.500 kg letxuga/ha eta 3.000 kg piper/ha. Txikizkako merkataritzarako eta azalera handietarako zuzeneko salmentara bideratuta dago.

Inkesten arabera, jarduerak honako azpi produktu hauek sortzen ditu:

- Uzta bildu aurretik produktua galtzea
Galdeketa egin duten lau ustiategietan uzta bildu aurretiko galderak izan dituzte, zehazki azpi produktuaren % 10 eta ekoizpen osoaren % 3. Galera

horiek animalien elikadurarako erabiltzen dira 4 ustiategitan, horietako 3 ustiategietan konposterako erabiltzen da eta bakar batean ez dira erabiltzen.

- Azken produktua galtzea

Galdetutako bi ustiategitan azken produktuan galerak izan dituzte, % 2,2 batez beste eta % 1,4 ekoizpen osoan.

Ustiategietako bitan elikadurarako erabiltzen da, giza zein animalien elikadurarako (ekoizpen totalaren % 0,13). Hala ere, xahuketa ekoizpen totalaren % 1,3 da eta konposterako erabiltzen da.


Galera horiek kanpaina gehienetan gertatzen dira eta baratze-ekoizpenaren urtarokotasunarekin lotura zehatza du. Hortaz, piperrak azpiproduktuak sortzen ditu maiatzetik abuztura; tomateak, berriz, maiatzetik urrira (azken produktua galtzea) edo ekainetik abendura (galerak uzta biltzean). Neguko laborantzaren (kuia, adibidez) urtarokotasunak azpiproduktuak sortzen ditu azaroa eta abendua bitartean.

SORTZEA ERAGITEN DUEN KAUSA	
Kalteak produktuan	% 50,00
Kalitate estandarra ez betetzea	% 25,00
Ekoizpen-soberakinak	% 25,00
Bilketan edo ekoizte-prozesuan galtzea	% 0,00
Biltegiatzean galtzea	% 0,00
Beste batzuk (borroka, itotze, harrapakinen eraso eta abarreatatik) galerak)	% 0,00
Legedia	% 0,00

KUDEAKETA MOTA	
USTIATEGIAN BERTAN baliatzea	% 100,00
BESTE BATZUK (landara, estolderiara... botatzea)	% 0,00
UDAL-ZERBITZUEK jasotzea	% 0,00
ENPRESA BALORIZATZAILE BATI ematea	% 0,00
HONDAKINEN KUDEATZAILE BATI ematea	% 0,00

AMAIERAKO HELMUGA	
Konposta egitea	% 50,00
Animaliak elikatzea	% 25,00
Beste batzuk (erre egiten da...)	% 25,00
Ez da baliatzen	% 0,00
Elikagaien bankuak	% 0,00
Ongarriak	% 0,00
Balio erantsiko osagaiak ateratzea	% 0,00

Eskema

Jarduera: Aire zabaleko baratzeak

“Aire zabaleko baratzeak” dituzten zazpi ustiategietan inkesta egin da. Katgoria horretatik atera dira baratzea aire zabalean aukeratu duten ustiategiak baina ekoizpen-sistema “negutegian” aukeratu dutenak; izan ere, horiek negutegi azpiko baratzea jardueraren barne daude.

Honako hauek dira laborantza nagusiak: kuia (galdetutako ustiategien % 43), piperra (% 29), porruak (% 29), babarruna (sasi altua) (% 29), zerba (% 14), azalorea (% 14), pipermina (% 14), letxuga (% 14), patata (% 14), eta tomatea (% 14). Inkestarako kontuan hartutako azalera 4,5 ha-koa izan da. Egindako inkestan, azaleraren arabera, honako hauek dira laborantza nagusiak: kuia (galdetutako ustiategien % 41), pipermina (% 18), babarruna (% 13), porruak (% 5), zerba (% 11), azalorea (% 4), patata (% 4), letxuga (% 1), piperra (% 1) eta tomatea (% 1).

Labore horien errendimendua honako hau da, gutxi gorabehera: 5.000 kg kuia/ha; 25.000 kg porru/ha, 4.970 kg azalore/ha, 27.000 kg tomate/ha, 5.000 kg letxuga/ha, 10.000 kg piper/ha eta 13.750 kg/ha pipermin. Ekoizpen gehienak zuzeneko salmentara bideratuta daude, txikizkako salmentan edo kontsumo-taldeetan, pipermina izan ezin, ozpinetakoak egiteko ontziratzen baita.

Inkesten arabera, jarduerak honako azpiproduktu hauek sortzen ditu:

- Uzta bildu aurretik produktua galtzea

Bildu aurretik aire zabaleko baratzkiek batez beste ekoizpen osoaren % 3,7ko galera eragiten dute. Ustiategietako batean animalien elikadurarako erabili da, beste bi ustiategitan, berriz, konposterako, eta bakar batean lurrean utzi da. Galera horiek ez du dute ez kosturik ez etekinik ustiategientzako.

- **Uzta bildu bitartean produktua galtzea**
Ustiategi bakar batean biltzeko prozesuan galerak %1,5 izan ziren (azpiproduktuaren totalari dagokionez), baina galera ezin da hauteman ekoizpen totala kontuan hartzen bada (% 0,01). Galera horiek baliatu daitezke, produktuak elikagaien bankura eramaten badira edo etxean kontsumitzen badira. Horrek ez du ez kosturik ez etekinik ustiategientzako.
- **Azken produktua galtzea**
Aire zabaleko baraztetako azken produktuen galera 5 ustiategietan erregistratu da eta ekoizpen totalaren %11 da. Bi ustiategik galeraren % 2 baliatu dute, ekoizpen totalaren % 1 giza/animalien elikadurarako. Hala ere, 4 ustiategitan galeraren % 14 erregistratu da, hau da, ekoizpen totalaren % 9,6ko xahuketa. Kasu horretan, xahuketa ez da baliatu (2 ustiategi) edo ez da konposterako erabili (3 ustiategi).


Galera horiek kanpaina gehienetan gertatzen dira eta baratze-ekoizpenaren urtarokotasunarekin lotura zehatza du. Inkesten arabera, aire zabaleko laborantza batzuetan (kuia eta letxuga, adibidez) azpiproduktuak sortzen dira hilero. Abuztuan, irailean eta urrian sortzen dira azpiproduktu gehien, bereziki urrian, bertan jasotzen baitira jatorri desberdinetako produktu gehien.

SORTZEA ERAGITEN DUEN KAUSA	
Kalteak produktuan	% 33,33
Kalitate estandarra ez betetzea	% 28,57
Bilketan edo ekoizte-prozesuan galtzea	% 23,81
Biltegiratzean galtzea	% 14,29
Beste batzuk (borroka, itotze, harrapakinen eraso eta abarreatatikoko galerak)	% 0,00
Ekoizpen-soberakinak	% 0,00
Legedia	% 0,00

KUDEAKETA MOTA	
USTIATEGIAN BERTAN baliatzea	% 68,18
BESTE BATZUK (landara, estolderiara... botatzea)	% 22,73
UDAL-ZERBITZUEK jasotzea	% 9,09
ENPRESA BALORIZATZAILE BATI ematea	% 0,00
HONDAKINEN KUDEATZAILE BATI ematea	% 0,00

AMAIERAKO HELMUGA	
Konposta egitea	% 33,33
Animaliak elikatzea	% 23,33
Beste batzuk (erre egiten da...)	% 23,33
Ez da baliatzen	% 16,67
Elikagaien bankuak	% 3,33
Ongarriak	% 0,00
Balio erantsiko osagaiak ateratzea	% 0,00

Eskema

Jarduera: fruta-haztegiak

17 ustiategi “fruta-haztegiei” inkesta egin diegu. Kategoria honen barruan sartu da sagarrondo ustiategi bat, “aire zabaleko baratzea” erantzun badu ere.

Fruta-haztegietatik lortzen diren produktuak honako hauek dira batik bat: mahatsa (galdetutako ustiategien % 71), sagarra (ustiategien % 24) eta oliba (ustiategien % 5). Galdetutako azalera 457 ha-koa da; mahasti-laborantza azaleraren % 4 da, sagarrondoak % 5 eta oliba, berriz % 1.

Labore horien batez besteko errendimendu produktiboa honako hau da, gutxi gorabehera: 5.700 kg mahats/ha, 8.000 kg sagar/ha eta 1.140 oliba/ha. Mahatsaren amaierako helmuga, oro har, ontziratzeko plantak eta upategiak izaten dira. Upategien kasuan, 3 ustiategitan mahatsaren amaierako helmuga ardoa egitea da. Galdetu den ustiategi bakarrean olibaren amaierako helmuga txikizkako salmenta da, eta sagarrak, berriz, azalera handietara eta handizkako merkataritzara bideratzen da; hala ere, ustiategi batek sagardotegiei saltzen die, eta beste batek, berriz, kontsumo-taldee zuzenean.

Inkesten arabera, jarduerak honako azpiproduktu hauek sortzen ditu:

- Uzta bildu aurretik produktua galtzea
Galdetutako 16 ustiategietan uzta bildu aurreko galerak daude, ekoizpen totalaren % 23 eta % 14 bitartean.
- Uzta bildu bitartean produktua galtzea
Hiru ustiategik galerak dituzte uzta bildu bitartean (% 0,72) baina kopuru hori ez da ekoizpen totalean nabaritzen.
- Azken produktua galtzea


Galdetutako hiru ustiategitan azken produktuan galderak izan dituzte, % 4,2 batez beste ekoizpen osoan. Ustiategi bakar batean, ekoizpen totalaren % 1,8 galtzen badute ere, ez dute mahatsaren azken produktua baliatzen kontseilu arautzaileak azken produktua ukatzen duelako. Beste bi ustiategitan, berriz, ekoizpen totalaren % 2,5 galtzen dute, eta produktua lurrean geratzen da, ez baitu jasotzea merezi, prezioagatik eta merkaturatzeko arazoak daudelako.

SORTZEA ERAGITEN DUEN KAUSA	
Kalteak produktuan	% 40,00
Kalitate estandarra ez betetzea	% 25,00
Ekoizpen-soberakinak	% 25,00
Bilketan edo ekoizte-prozesuan galtzea	% 0,00
Biltegiatzean galtzea	% 0,00
Beste batzuk (borroka, itotze, harrapakinaren eraso eta abarreatatik gainerak)	% 0,00
Legedia	% 0,00

KUDEAKETA MOTA	
USTIATEGIAN BERTAN baliatzea	% 100,00
BESTE BATZUK (landara, estolderiara... botatzea)	% 0,00
UDAL-ZERBITZUEK jasotzea	% 0,00
ENPRESA BALORIZATZAILE BATI ematea	% 0,00
HONDAKINEN KUDEATZAILE BATI ematea	% 0,00

AMAIERAKO HELMUGA	
Ez da baliatzen	% 77,27
Beste batzuk (erre egiten da...)	% 9,09
Ongarriak	% 9,09
Animaliak elikatzea	% 4,55
Konposta egitea	% 0,00
Elikagaien bankuak	% 0,00
Balio erantsiko osagaiak ateratzea	% 0,00

Eskema



Laburpena

- Uzta bildu aurretiko eta uzta bitarteko galerak ez dira elikagaien xahuketatzat hartu, izan ere, azterlan honetan ez dira giza kontsumorako elikagaitzat hartu.
- Baratze-laboreetako eta fruta-haztegietak azken produktutzat ekoiztu diren galerak soilik hartu dira xahutze gisa, giza kontsumorako bideratutako elikagaiak baitziren, horretarako erabili ez baziren ere. Azken produktua, merkataritza-produktua ez bada ere, giza edo animalien kontsumora bideratu bada, ez da xahuketatzat hartu.
 - Negutegi azpiko baratzeak:
Galera ekoizpen totalaren % 1,3 da.
Emaitzak negutegi azpian kuia lantzen duen ustiategi (arraroa da, baina posiblea) batekin lotuta daude, usteltzen baita, horren arrazoiaren berri ez badugu ere.
 - Aire zabaleko baratzeak:
Nekazaritzaren eremuan elikagaien xahuketa gehien hauteman da, ekoizpen totalaren % 9,6.
Piperminean ez dira kalitate-estandarrik betetzen, eta horregatik ez da baliatzen, baina baita babarrun eta piperretan, konposterako baliatzen badira ere. Azalore eta kuia galerak merkataritza-arazoaren ondorioz sortzen dira, baina konposterako erabili edo usteldu egiten dira.
 - Fruta-haztegiak:
Fruta-haztegien kasuan, xahuketa ekoizpen totalaren % 2,5 da.

Xahuketa hori merkataritza-arazoekin lotuta dago.

Bi ustiategitan sagarrak galtzen dira, bertan geratzen baitira bildu gabe merkaturatze arazoengatik eta prezioen jaitsieragatik; izan ere, horren bilketa ekonomikoki onuragarria ez izatea eragiten du.

5.1.B Abeltzaintza sektorea

Jarduera: OILO ERRULEAK (OTE 521)

Oilo erruleen ustiategiei 11 inkesta egin zaizkie, eta bakarra genetikoki hobetzeko ahateak hazteko ustiategi bati. Inkesten arabera, jarduerak honako azpiproduktu hauek sortzen ditu:

- Hildako oiloak: bereziki azpimarratu behar ditugu hildako oiloak (bajak) ustiategietan. Halaber, oilo zaharrak daude, baina galdetutako baserri bakar batek aipatu ditu. Inkestan bi arrazoiak (bajak eta zaharrak) nahastuta daudela dirudi (gainerako oiloen % 4,9ko batez bestekoa, ahateen baserria kontuan hartu gabe).
- Ustiategi bakar batek aipatu du zahartzea oiloak galtzeko arrazoi gisa. Hala ere, ziurrenik akatsa izango da; izan ere, % 10 dira, udal-zerbitzuek biltzen dituzte, ez dira erabiltzen eta ez dute ez gasturik ez diru-sarrerarik eragiten baserrian.
- Bi baserrian ez da aipatu oiloak galtzen direnik, eta, logikoki, galdu egiten dira. Hil kortasunagatiko bajak zenbatu zituzten 11 baserrian kopurua % 1,48 zen (11 baserrien pisu osoaren arabera).
- Uste dugu ustiategi batzuetan ez dela abereen galera kontuan hartu eta/edo datua balio bakar batean nahastu egin dute. Halaber, alde nabaria dago ustiategiaren tamainaren arabera. Hortaz, tamainaren arabera: [0-6.000] eta [>6.000] abere, galeren balioak desberdinak dira. Lehenengo kasuan, batezbesteko haztatua (BH) % 12 da, eta, bigarrenean, berriz, % 4, betiere kontuan hartzen badugu oilo zaharrak eta bajak nahastu direla ekoizte-prozesuan zehar.

Jarraian, inkestetan oiloak galtzeko arrazoi nagusiak jasotzen dira (erantzun bat baino gehiago zegoen aukeratzeko).

SORTZEA ERAGITEN DUEN KAUSA	
Bilketan edo ekoizte-prozesuan galtzea	% 35,71
Kalteak produktuan	% 35,71
Beste batzuk (borroka, itotze, harrapakinen eraso eta abarreatatikoko galerak)	% 28,57

Orokorrean, hildako oiloak baimendutako hondakinen kudeatzaile batek jasotzen ditu (dagokion aldundiaren zerbitzua), baina eremu geografiko bereko (Goierri) bi baserrian udal-bilketa egiten da.

KUDEAKETA MOTA	
HONDAKINEN KUDEATZAILE BATI ematea	% 50,00
UDAL-ZERBITZUEK jasotzea	% 16,67
ENPRESA BALORIZATZAILE BATI ematea	% 16,67
BESTE BATZUK (landara, estolderiara... botatzea)	% 16,67

Hondakinen kudeatzaileari eman ondoren hegaztien amaierako helmugari dagokionez, kudeatzaileek helmuga desberdinak erabiltzen dituzte edo erabiltzaileek ez dute helmuga ezagutzen (errausketa, balorizazioa, animalien elikadura).

AMAIERAKO HELMUGA	
Ez da baliatzen	% 72,73
Beste batzuk (erre egiten da...)	% 27,27

Oiloak edo ahateak galtzen dituztela aipatu zuten 12 baserrietatik 3k uste dute kostua eragiten dutela aldundiko zerbitzuek edo udal-zerbitzuek jasotzen badituzte ere. Gainerako 9ek uste dute ez duela ez kosturik ez diru-sarrerarik eragiten. Dirudenez, hildako oiloak kostua eragiten dutela uste izateak ustiategiaren produktibitate galerari lotuta dago eta ez kudeaketak eragiten dituen kostuei; halaber, baliteke zergetan (udalekoak edo aldundikoak) hildako hegaztiak kudeatzeko kostuak barne hartzen direla uste izatea.

- Kontsumitu ezin diren arrautzak (apurtuta) eta merkaturatu ezin direnak (ez dituzte kalitate-estandarrak betetzen): galdetutako ustiategi guztietan azken produktuaren (arrautzen) zati bat galtzen dela adierazi da. Inkestetan bi arrazoi bereizten dira: alde batetik, ekoizpen-fasean ukapen/galera gisa galtzen diren apurtutako arrautzak, eta, bestetik, apurtu ez diren arren, ekoizpen-fasearen amaieran kalitate-estandarrak betetzen ez dituztenak (logistika arazoak, kalitate-errekerimenduak, soberakinak...). Galeraren batez besteko balioa % 3,8 da ustiategi guztietan.
- Zuringoa galtzen duten *arrautza apurtuak* (oskol ahula, oiloak zulatzea, arrautzen arteko kolpea, sailkatu bitarteko manipulazio mekanikoa) ezin dira merkaturatu. Kasu horretan, galdetegietan adierazi da kentzen direla (barne-suntsipena, zaborren udal-bilketa, hondakinen kudeatzaileari eman...) edo ustiategian bertan baliatzen direla adierazi da (animalien elikadura, ongarritzea). Kuantifikatu dituen ustiategiek ekoiztutako arrautzen % 0,14 da.
- *Kalitate-estandarrak betetzen ez dituzten arrautzak*, inkestaren arabera, elikagai-industriara (pasteurizazioa, arrabina...), edo, ustiategiaren barne, giza elikadurara bideratzen dira. Lehenengo kasuan, salmentari esker, diru-sarrera

dakar (inkesta bakar batean izan ezik, non uste den ez duela diru-sarrerarik ez kosturik eragiten); bigarren kasuan, aldiz, diru-sarrerarik edo kosturik ez dakarrela uste da. Arrautza horien zenbaketa egin dituzten baserri guztietan ekoizten diren arrautzen % 4,07 dira.

- Edonola ere, oiloen galeran egin den bezala, kalkulu horiei dagokionez, ez dirudi alde nabarmenik dagoen ustiategiaren tamainaren arabera.

Inkesta batzuetan ez dira bi galera motak desberdindu (haustura, kalitate-estandarra ez betetzea), eta, beraz, zaila da biak banaka zenbatzea. Hala ere, badirudi galera txikiagoa dela lehenengo kasuan (haustura: merkaturatutako arrautza guztien pisuaren % 2,58-3,98 artean) eta handiagoa bigarren kasuan (estandarrak ez betetzea: % 0,51-3,51 arteko galera). Horregatik guztiagatik, zaila da kausa nagusia zehaztea, baina erantzunekin bat, honela banatzen dira:

SORTZEA ERAGITEN DUEN KAUSA	
Jasotze edo ekoizte-prozesuan galtzea	% 50,00
Kalitate-estandarra ez betetzea	% 33,33
Biltegiatzean galtzea	% 8,33
Beste batzuk (galerak borroken, itotzeen, harrapakarien erasoen eta abarren ondorioz)	% 4,17
Ekoizpen-soberakina	% 4,17

2 inkestatan aipatu da kalitate txikiko arrautzak (kalitate-estandarrak betetzen ez dituztenak) baliatzeko arrakasta industriari saltzea izan dela. Baliatze mota hori galdetutako zazpi baserritan egiten da.

Inkesta egindako 14 baserritatik 3tan arrautzak ez dira ustiategian bertan baliatzen (giza elikadura, animalien elikadura, ongarritzea), eta ez dira elikagai-industriara ere bideratzen. 3 ustiategi horietan, horietako bakoitzaren ekoizpenari dagokionez, arrautzen % 1,59 galtzen da batez beste, baina ez da adierazi apurtu diren arrautzak edo kalitate-estandarrak betetzen ez dituztenak diren. Edonola ere, 14 ustiategietan ekoiztu diren arrautzen totalari dagokionez, % 0,40 ez dira balioztatzen, eta, neurri batean, hautsita egotearen ondorio izan daiteke (ez dira gai giza elikadurarako). Jarraian, kudeaketa-mota eta amaierako helmuga agertzen da lortutako emaitza kopuruaren arabera. Aipatu behar da "BESTE BATZUK" atalaren barne, erantzun gehienetan, elikagai-industriara bideratzen dituztela adierazten dela (% 63), eta gainerakoetan, aldiz, ez dela baliatzen eta suntsitu egiten direla.

KUDEAKETA MOTA	
BESTE BATZUK (lursailera botatzea, estolderiatik, etab.)	% 44,44
USTIATEGIAN BERTAN baliatzea	% 22,22
HONDAKINEN KUDEATZAILEARI ematea	% 16,67
UDALAK jasotzea	% 11,11
ENPRESA BALORIZATZAILEARI ematea	% 5,56

Kudeaketa-motan gertatzen den bezala, amaierako helmuga “beste batzuk” dela esaten duten enpresen % 55, elikagai-industriara bideratzen dutela aipatzen dute. % 22k adierazi du barne-kontsumorako erabiltzen dela, baldin eta horretarako gai badira; beste % 22k adierazi du ez dakiela nola bideratzen diren arrautzak, hirugarren enpresa bati ematen dizkiolako.

AMAIERAKO HELMUGA	
Beste batzuk (erretzen dira, etab.)	% 50,00
Ez da baliatzen	% 38,89
Animalien elikadura	% 5,56
Ongarria	% 5,56

Oiloen zein arrautzen xahuketa kanpaina guztietan eta urte osoan zehar sortzen da (ez da urtarokoa); izan ere, ekoizpena gutxi gorabehera etengabea izatea saiatzen baita.


Laburpena:

- Oilo zaharrak eta ustiategian hildako oiloak (oiloen % 1,5), ikerketa honen baitan, ez dira giza elikadurara bideratzen. Beraz, ez dira elikagaien xahuketatzat hartzen. Oilo horiek baimendutako kudeatzaileei entregatu ohi zaizkie.
- Baldintza higieniko-sanitarioak betetzen ez dituzten arrautzak (ekoiztutako arrautzen % 0,14), hala nola, apurtutako arrautzak, ez dira giza kontsumorako elikagaitzat hartzen; izan ere, ezin dira helburu horretarako erabili. Hortaz, ikerketa honetarako definitutakoarekin bat, ez dira elikagaien xahuketatzat hartzen. Oro har, baserriaren barne balioztatzen dira (animalientzako elikagaiak, ongarriak) edo hondakinen kudeatzaileei ematen zaizkie.
- Baldintza higieniko-sanitarioak bete arren, kalitate-estandarrak betetzen ez dituzten arrautzak (tamaina, oskolaren gogortasuna, forma, etab. dela eta) (ekoiztutako arrautzen % 4,1) giza elikadurara bideratu ohi dira, bai baserrian bertan edo elikagai-industriaren bidez. Beraz, ez dira elikagaien xahuketatzat hartzen.

	GALERA	XAHUKETA
Hildako oiloak eta oilo zaharrak	% 4,9	% 0
Kontsumitu eta/edo merkaturatu ezin diren arrautzak	% 4,21	% 0

Eskema

Ganadería



*Materias primas no utilizadas que aún no están listas para ser consumidas: ganado y cultivos que se eliminan [...]. Causas: enfermedades de los animales, plagas o condiciones climáticas [...] estas materias primas [...] se habrían convertido en alimentos si hubieran seguido creciendo [...].

*Productos no comestibles no utilizados en la producción de alimentos: pollos machos y gallinas ponedoras que se descartan debido a que no tienen un valor de mercado pero que tienen el valor nutricional para ser potencialmente consumidas por los seres humanos. Estos recursos NO se definen como alimentos, ya que no están "destinados a ser, o se espera que sean, ingeridos por los humanos" (FUSIONS 2016, manual de cuantificación)

© Nekter, 2020

HARAGITARAKO OILASKOEN jarduera (OTE 522)

5 inkesta egin dira haragirako edo gizentzeko oilaskoen ustiategietan, eta horietatik bitan 175.000 oilasko/urte baino gehiago dituzte, eta beste hiruetan 10.000 oilasko/urte ekoizten dituzte.

Inkesten arabera, jarduera horretatik azpiproduktu hauek sortzen dira:

- Ustiategian hildako oilaskoak: ekoizte-prozesuan zehar, ustiategietan, batez beste, oilaskoen % 1,8 hiltzen da (bajak) (galdetutako ustiategien batura eginez gero, galera % 2,3 da)

Oilaskoak hiltzea eragiten duten zenbait gaixotasun aipatzen dira (gaixotasunak, ustiategira iristen diren txiten tamaina txikia, meteorologia, hegaztien arteko borrokak, itotzeak, harraparien erasoak, etab.).

Inkesta egin zaien 2 baserri handienek adierazi dute ustiategian hil diren oilaskoak baimendutako hondakinen kudeatzaile bati ematen dizkietela, eta uste dutela horrek ez dakarrela kostu ezta diru-sarrerarik ustiategirako; horrez gain, ustiategi txikietako batean adierazi dute ustiategiaren barneko animalien elikadurarako erabiltzen ez dituzten hildako oilaskoak baimendutako kudeatzaile bati ematen dizkietela. Beste ustiategi txiki batean dagokion foru aldundiko bilketa-zerbitzuari ematen dizkiete (ustiategi honetan kostua dela deritzote; izan liteke zerbitzu horrek kostua ekartzea zergak direla eta edo hildako oilaskoak diru-sarrera izan beharko liriatekeela salmenten bidez). Galdetutako baserri bakar batean (txikia) adierazi dute hildako oilaskoak ustiategian bertan kudeatzen dituztela karearen bidez (galdetutako ustiategi guztietan ekoiztutako oilaskoen % 0,026 da).

- Ohikoa den baino prezio txikiagoan saldu diren oilaskoak: galdetutako enpresa handietako batean arazo hau aipatu dute. Prezio txiki hori oilasko-haragiak merkatuan duen soberakinaren ondorio da, eta, hori dela eta, oilaskoak behar baino gehiago gizentzen dira, eta, salmenta-kanala mantentzen den arren, amaierako prezioa jaitsi egiten da. Galdetutako baserrian ekoiztutako oilaskoen %15 saldu behar dituzte prezio txikiagoan (hau da, galdetutako ustiategi guztien % 7,1). Horrek ustiategiaren onura murriztea dakar, baina berez ez da xahuketa; aitzitik, baserriaren marjinak hobetzeko aintzat hartu beharreko kontua da.

Kasu honetan, aipatu dugu galdetutako 5 ustiategiak bitan banatu daitezkeela. Lehenengo taldean 0-15.000 oilasko/urte ekoizpena duten baserriak egongo lirateke, eta bigarrenean 15.000 oilaskotik gorako ekoizpena dutenak. Txikienetan galera totalaren ehunerako % 2,75 da, eta handienetan % 4,79.

Oilasko-haragiaren xahuketa kanpaina guztietan eta urte osoan zehar sortzen da (ez da urtarokoa); izan ere, ekoizpena gutxi gorabehera etengabea izatea saiatzeko baita.

Hauek dira haragirako oilaskoen xahuketaren kausa nagusiak: gaixotasunak, ustiategira iristen diren txiten heriotza goiztiarra eta meteorologia. Kasu honetan, badirudi arrazoi estetikoak edo legegintza-arrazoiek ez dutela eraginik.

SORTZEA ERAGITEN DUEN KAUSA	
Kaltean produktuan	% 50,00
Beste batzuk (galerak borroken, itotzeen, harrapakarien erasoen eta abarren ondorioz)	% 25,00
Galera jasotze- edo ekoizte-prozesuan	% 12,50
Ekoizpen-soberakina	% 12,50

Oro har, oilo erruleekin gertatzen zen bezala, hildako oilaskoak baimendutako hondakinen kudeatzaile bati ematen zaizkie; izan ere, “enpresa balorizatzaileari entregatzea” erantzuna aintzat hartu da, eta “beste batzuk” atalean kasuistika hori agertzen da.

KUDEAKETA MOTA	
Beste batzuk	% 50,00
Hondakinen kudeatzaileari ematea	% 33,33
Enpresa balorizatzaileari ematea	% 16,67
Udalak jasotzea	% 0,00
Ustiategian bertan baliatzea.	% 0,00

Hegaztien amaierako helmugari dagokionez, hondakinen kudeatzaileei entregatu ostean, kudeatzaile batzuek helmuga desberdinak erabiltzen dituzte, eta, beste kasu batzuetan, inkestatuak ez dakite zehazki zein den helmuga (ez da baliatzen, ez dakite). Ustiategi batean adierazi dute prezio txikiagoan saltzen dituztela animaliekin zerbait egitearren.

AMAIERAKO HELMUGA	
Ez da baliatzen	% 57,14
Beste batzuk (erretzen dira, etab.)	% 28,57
Animalien elikadura	% 14,29


Laburpena:

- Ustiatzean hildako oilaskoak (ekoiztutako oilaskoen % 2,3), ikerketa honen baitan, ez dira giza elikadurara bideratzen. Hortaz, ez dira elikagaien xahuketatzat hartzen. Oilasko horiek, oro har, baimendutako kudeatzaileei entregatzen zaizkie, baina ehuneko txiki bat ustiatzearen barne erabiltzen da animalien elikadurarako edo animalia desagerrarazi egiten da karea erabiliz.

	GALERA	XAHUKETA
Hildako oilaskoak	% 2,3	% 0

Eskema

Ganadería



HARATIGARAKO GAI DIREN BEHIEN jarduera (OTE 460)

8 inkesta egin zaizkie haragitarako behi-aziendaren ustiatzei. Inkesten arabera, jarduera horretatik azpiproduktu hauek sortzen dira:

- Ustiatzean hildako txahalak: ekoizte-prozesuan zehar, ustiatzean, batez beste, txahalen % 2,5 hiltzen da (bajak) (galera zenbatu duten galdetutako 7 ustiatze batura). Ehuneko horren barne ustiatze zehatz baten galera adierazten da, zeinetan galera gainerakoetan baino askoz altuagoa den (% 14,6). Baja edo hilkortasunaren zenbait arrazoi aipatu dira: gaixotasunak (bereziki gaixotasun gastrointestinalak), zapalketak edo itotzeak.

Galera hori noizbehinka gertatzen da ustiatze txikienetan (haragitarako 12 behi arte) eta uste dute berdin gertatzen dela tamaina handiko kanpainetan

(haragirako 55 behitak aurrera); probabilitatearen ikuspegitik logikoa da, hau da, gero eta txahal gehiago, orduan eta aukera gehiago baten bat ustiatzean hiltzeko. Aitzitik, ustiatzeagatik txikienean (haragirako 5 behi) adierazi dute txahal bat 10 urtean behin hiltzen dela.

SORTZEA ERAGITEN DUEN KAUSA	
Kalteak produktuan	% 71,43
Galera jasotze- edo ekoizte-prozesuan	% 28,57
Beste batzuk (galerak borroken, itotzeen, harrapakarien erasoen eta abarren ondorioz)	% 0,00
Ekoizpen-soberakina	% 0,00
Kalitate-estandarra ez betetzea	% 0,00
Biltegiatzean galtzea	% 0,00
Legedia	% 0,00

Galdetutako 6 enpresetan, hildako txahalak baimendutako kudeatzaileei ematen zaizkie (horietako bitan, hau da, % 33an, aldundiaren zerbitzua aipatzen da).

KUDEAKETA MOTA	
HONDAKINEN KUDEATZAILEARI ematea	% 50,00
ENPRESA BALORIZATZAILEARI EMATEA	% 33,33
UDALAK jasotzea	% 16,67
BESTE BATZUK (lursailera botatzea, estolderiatik, etab.)	% 0,00
USTIATEGIAN BERTAN baliatzea.	% 0,00

Hortik aurrera, aipatzen diren helmugak askotarikoak dira, segur aski ez dakitelako amaierako hondakinen kudeatzaileak zer egiten duen (ez da baliatzen, animalien elikadura, errausketa); edonola ere, adierazi dute hildako txahalek kostua dakartela (1 ustiatze) edo ez dutela kosturik ez diru-sarrerarik eragiten (5 ustiatze).

Inkesta batean adierazi dute udaleko zerbitzuak jasotzen dituela hildako txahalak; hala ere, inkesta horretan ere adierazten da jasotze horrek diru-sarrera dakarrela ustiatzeagatik, eta, horregatik, agian, ez litzateke kontuan hartu beharko.

AMAIERAKO HELMUGA	
Ez da baliatzen	% 57,14
Animalien elikadura	% 28,57
Beste batzuk (erretzen dira, etab.)	% 14,29

- Behi zaharrak (berriz jartzea): Galdetutako ustiatze batek adierazi du kanpaina guztietan ekoizten direla behi zaharrak, hau da, behiak saldu egiten dira dagoeneko emankorrak ez direlako. Pentsa liteke mota horretako galerak ustiatze guztietan gertatzen direla, nahiz eta soilik inkesta bakar batean aipatu den.

Aipatzen duen inkestaren arabera, ustiategiko behi inudeetatik % 5,6 zaharrak dira. Hori kanpaina guztietan gertatzen da eta harakintza-industriari saltzen zaizkio; horrek diru-sarrera dakar, baina nekazaritzako ustiategiaren arabera, ez da ekonomikoki bidezkoa, prezioa harakintza-industriak jartzen duelako. Datu bakarra denez, behi zaharren ehunekoa inkesta gehiagorekin osatu beharko litzateke.

- Ustiategian hildako behiak: ustiategi batean aipatzen da behi bat ekoizte-prozesuan zehar hil zela. 12 behi dituen ustiategia da, eta, ondorioz, ustiategiko xahuketaren ehunekoa % 6 da. Ehuneko hori altua dela iruditzen zaigu; izan ere, ehuneko hori ustiategi guztiak kontuan hartuta kalkulatzen badugu, % 0,17 izango litzateke. Kasu honetan, hondakinen kudeatzaileari ematen zaio, eta elikagaien xahuketara bideratzen da.

Behi-aziendaren galera urteko edozein momentutan gerta daiteke (ez da urtarokoa).

Hortaz, laburpen gisa, honako hau da azpiproduktu-motaren araberrako ehunekoa: hildako txahalak: % 2,18; behi zaharrak: % 5,6 eta hildako behiak: % 0,17.


Laburpena:

- Behi zaharrak eta ustiategian hildako txahalak (ekoiztutako txahalen % 2,5), ikerketa honen baitan, ez dira giza elikadurara bideratzen. Hortaz, ez dira elikagaien xahuketatzat hartzen. Behi zaharrak giza elikadurara bideratzen dira alde batetik, eta, bestetik, ustiategian hildako txahalak baimendutako kudeatzaileei eman ohi zaizkie.

	GALERA	XAHUKETA
Hildako txahalak	% 2,5	% 0
Behi zaharrak	% 5,6	% 0
Hildako behiak	% 0,17	% 0

Eskema

Ganadería



© Nekter 2020

ESNETARAKO GAI DIREN BEHIEN jarduera (OTE 450)

12 inkesta egin dira esnetarako behi-aziendaren ustiategietan. Ustiategirik txikienak 6 esne-behi ditu eta handienak 260 esne-behi. Inkesten arabera, jarduera horretatik azpiproductu hauek sortzen dira:

- Ustiategian hildako txahalak: 3 ustiategietan txahalen bajak egon direla aipatu da (% 1,9 batez beste ustiategi bakoitzean; txahalak aipatzen dituzten 3 ustiategien batura eginez gero, galera % 1,6 da).

Adierazi da baja horiek gaixotasunen ondorio direla (beherakoak, etab.).

2 ustiategitan aipatu dute baja horiek urtero geratzen direla; hirugarrenean (txikiena, ustiategian 6 esne-behi ditu), aldiz, noizbehinka gertatzen dela adierazi du.

Hildako txahalak baimendutako kudeatzaileei ematen zaizkie (horietako batean aldundiaren zerbitzua aipatzen da). Uste dute hildako txahalek kostua dakartela (2 ustiategi) edo ez duela kosturik ez diru-sarrerarik eragiten (1 ustiategi).

- Ustiategian hildako behiak: galdetutako 6 ustiategitan aipatzen da kanpaina guztietan esne-behien bat hiltzen dela (ustiategi bakoitzean esne-behien totalaren % 3,13 batez beste; 6 ustiategietako totala, aldiz, % 2,21). Gaixotasunen, ezbeharrez, erditzean izandako arazoen eta abarren ondoriozko bajak dira.

Behiak baimendutako kudeatzaileei ematen zaizkie (horietako batean aldundiaren zerbitzua aipatzen da). 3 ustiategitan uste dute ez dakarrela kosturik; beste hirutan, aldiz, ez du kosturik ez diru-sarrerarik eragiten.

- Esne-behia: galdetutako ustiategi guztietan (12 ustiategi) galtzen da esnea (% 0,008 eta % 7,78 tartea ustiategiko esne-ekoizpenari dagokionez). Muturreko balio horiek (galerarik txikienean zein handienean) 50-60 esne-behi dituzten ustiategiei dagozkie (60 behi baliorik txikienean eta 50 handienean); horrez gain,

10 behi dituen ustiategi batean galera % 2koa da. Muturreko balio horiek kontuan hartuta, esnearen galera % 1,02 da batez beste ustiategi bakoitzean (% 0,51 batez beste 12 ustiategien baturaren esne-ekoizpenari dagokionez). Muturreko % 7,78ko balioa aintzat hartu gabe, honako hauek izango liriateke balioak: esne-ustiategiaren batez besteko galera % 0,37 izango litzateke batez beste (% 0,27 batez beste, muturreko balioak ez dituzten 11 ustiategien baturaren eske-ekoizpenarekin alderatuta). Gainera, esnearen kasuan, ustiategien tamainaren arabera sailkapena eginez gero (1-50 eta >50), ez dago alde nabarmenik.

Inkestetan adierazten denaren arabera, 4 arrazoi daude esnea galtzeko:

- Oritza Esnearen galeraren % 8,1. Jaio berri diren txahalek edaten duten esnea da. Soilik bi ustiategitan aipatzen da, baina batean zenbatzen da bereizita (ustiategian ekoiztutako esnearen % 0,27). Oritza ustiategiko txahalak elikatzeko erabiltzen da, eta oritza aipatzen duten ustiategiaren arabera, ez da kostua ezta diru-sarrera ere.
- Osasun arrazoiak: gaixorik dauden behiak eta antibiotikoen arrastoak dituztenak galtutako esne totalaren % 59,5 da. 8 ustiategitan zenbatu eta 8 ustiategi horietan guztietan ekoiztutako esnearen % 0,17 da.

Inkesten arabera, hau da ustiategietan ematen zaion erabilera:

- % 77,3 partzela propioetan sakabanatzen da (fertilrigaziorako erabiltzen dela baloratzen da).
 - % 14,5 ustiategiaren barne erabiltzen da animalien elikadurarako
 - % 6,8 hondakinen kudeatzaileari ematen zaio
 - % 1,4 beste ur batzuekin botatzen da estolderiatik
- Ez ditu kalitate-estandarrak betetzen. Esnearen galeraren % 17,4. Arrazoi hori 2 ustiategitan aipatzen da. Bien artean ekoiztutako esnearen % 0,16 galtzen da. Inkesta horietan ez da antibiotikoaren arrastoa aipatzen, baina ez da aipatzen ere esneak zergatik ez dituen kalitate-estandarrak betetzen; litekeena da esneak ez betetzea giza kontsumorako beharrekoak diren baldintza higieniko-sanitarioak; izan ere, bi inkesta horietako batean adierazten dute “ekoizpen fasean produktua baztertu/galdu dela (antibiotikoa duen esnea, arrautzak apurtzea...)”

Inkesta batean aipatu dute esnea ustiategiaren barne erabiltzen dela animalien elikadurarako, eta kostua dakarrela uste dute. Beste ustiategi batean, aldiz, animalien elikadurarako edo fertilrigaziorako erabiltzen dute beren partzeletan, eta uste dute ez dakarrela kostu ezta diru-sarrerarik.

Kontuan hartzen badugu azken horretan kalitate-estandarrak betetzen ez dituen esnearen erdia zertarako erabiltzen den, % 86,76 animalien elikadurarako eta % 13,24 fertilrigaziorako erabiltzen da.

- Jezteko, gordetzeko, lekualdatzeko... eraginkorra ez izatea. Esnearen galeraren % 15: galdetutako 2 ustiategitan aipatzen da. Ustiategi batean adierazten da esne hori ustiategiko larreetan erabiltzen dela (fertirrigazioa), hau da, prozesuan zehar eraginkorra ez izateagatik galtzen den esnearen % 96,2. Beste ustiategian aipatzen da esne hori animalien elikadurarako erabiltzen dela, eta, horrez gain, elikagaien bankua ere aipatzen da; hala ere, ustiategi honetako erantzunek iradokitzen dute, oro har, esne hori ustiategiko bertako txahalak elikatzeko erabiltzen dela (mota horretako galeren % 3,8).

Galera hori urteko edozein momentutan sor daiteke (ez da urtarokoa).

Laburbilduz, esan daiteke gehien aipatu diren arrazoiak "kalteak produktuan" eta "legedia" izan direla. Bi arrazoi horiek erreferentzia egiten dioten antibiotikoen arrastoaren ondorioz galtzen den esnari, edo behia gaixo egotearen ondorioz galtzen denari. Horrez gain, "kalitate-estandarra ez betetzea", segur aski, arazo horren barne sartzen den beste arrazoa da. Galera horiek urteko edozein momentutan sor daitezke (ez da urtarokoa).

SORTZEA ERAGITEN DUEN KAUSA	
Kalteak produktuan	% 50,00
Kalitate-estandarra ez betetzea	% 16,67
Biltegiatzean galtzea	% 16,67
Beste batzuk (galerak)	% 11,11
Legedia	% 5,55

Kudeaketa-motan emandako erantzunei dagokionez, gehienek ustiategian bertan baliatzen dela ulertzen da, bai animalien elikadurarako bai lurra ongarrizko. Hala ere, 7 ustiategietan zuzenean zakarretara edo estolderiatik botatzen dela aipatzen da.

KUDEAKETA MOTA	
USTIATEGIAN BERTAN baliatzea.	% 52,94
BESTE BATZUK (lursailera botatzea, estolderiatik, etab.)	% 41,18
HONDAKINEN KUDEATZAILEARI ematea	% 5,88

Kasu honetan, kudeaketa-mota eta amaierako helmuga oso lotuta daude; izan ere, aipatutako erantzun-mota errepikatzen dela ikus dezakegu. Deigarria da "elkagaien bankua" helmuga ustiategi bakar batean baino ez dela aipatu.

AMAIERAKO HELMUGA	
Ez da baliatzen	% 38,89
Animalien elikadura	% 27,78
Ongarria	% 22,22
Beste batzuk(erretzea, etab.)	% 5,56
Elikagaien bankua	% 5,56

Laburpena:


- Esnetarako behiak (behien % 2,5) eta ustiategian hildako txahalak (ekoiztutako txahalen % 1,6), ikerketa honen baitan, ez dira giza elikadurarako elikagaitzat hartzen. Hortaz, ez dira elikagaien xahuketatzat hartzen. Batak zein besteak hondakinen kudeatzaileei eman ohi zaizkie.
- Galdetutako enpresetan ekoizten den esnearen % 0,21 galdu egiten da.
 - Giza elikadurarako baldintza higieniko-sanitarioak betetzen ez dituen esnea (galdutako esnearen % 59,5) ez da giza elikagaitzat hartzen, eta, hortaz, ezta elikagaien xahuketatzat ere.
 - Oritza (aipatutako galdutako esnearen % 8,1) ustiategian bertan erabiltzen da txahal jaio berriei edoskitzen emateko. Hori ere ez da elikagaien xahuketaren definizioaren barne jasotze, ezta giza elikadurara bideratutako elikagaien definizioan ere
 - Kalitate-estandarrek betetzen ez dituen esnea (galdutako esnearen % 17,4). Agian giza elikagaitzat hartu liteke, baina litekeena da giza kontsumorako ere gai ez izatea; izan ere, inkestetan ez da argi gelditzen zergatik ez dituen kalitate-estandarrek betetzen. Edonola ere, zati handi bat ez litzateke elikagaien xahuketa izango, oro har ustiategiaren barne animalien elikadurarako erabiltzen baita. Animalien elikaduraren barne balorizatutako parteak kendu ostean, finkako partzeletan sakabanatzen den zatia elikagaien xahuketatzat har liteke (galdutako esnearen % 4,1), baldin eta giza-kontsumorako aproposa bazen.
 - Sistemaren eraginkortasunik ezaren ondorioz galdutako esnea (galdutako esnearen % 15). Giza-kontsumorako elikagaien definizioaren barruan sar liteke, baina oro har elikagaien xahuketatzat ere; izan ere, neurri handi batean ustiategiko partzeletan bertan erabiltzen da.

Hortaz, inkestari erantzun dioten ustiategietan, oro har, esnearen galera % 19,1 da; hau da, behi-esnearen ekoizpeneko % 0,04 elikagaien xahuketa da.

	GALERA	XAHUKETA
Hildako txahalak	% 1,9	% 0
Behi-esnea.	% 0,51	% 0,04
Hildako behiak	% 2,21	% 0

Eskema

Ganadería



ARDI jarduera (OTE 481)

6 inkesta egin dira ardiei lotutako 6 ustiategitan: ustiategi bakar batean da ardi-esnea jarduera nagusia, beste 5ak haragitarako behien ustiategiak dira, eta arkumea eta ardi-behia ere ekoizten dute.

Inkesten arabera, artaldean tamaina 30-650 ardi-kopuru artekoa da, eta urteko ekoizpena 33-150 esne-ardi eta 0,57-1,25 arkume/ardi dira.

- Esne-gazura: Esne-ardia jarduera nagusia den ustiategian (400 ardi) gazta egiten da, eta hura ekoizterakoan 0,67 L esne-gazura/L esne sortzen dira urtarila eta uztaila artean (biak barne).

Azpiproduktu hori ustiategiaren barne erabiltzen da animalien elikadurarako eta uste dute horrek ustiategian kostua dakarrela.

Inkesta horretan baino ez da aipatu esne-gazura galera dela.

- Ustiategian hildako ardiak: 4 ustiategitan aipatu dute arkumeen bajak izan dituztela (arkumeak aipatzen dituzten 4 ustiategietan galera % 1,48 da), baina horietako batean badirudi kopuru altuegia dela. Horren arrazoia da, segur aski, eman duten ekoizpen-datua txikia dela (0,57 arkume/ardi) (ezohiko datu hori kontuan izan gabe, ustiategiko arkumeen totaletik hiltzen diren batez besteko arkumeen % 0,70 litzateke).

Baja horiek kanpaina guztietan gertatzen dira; 2 ustiategiren arabera, hilero, baina beste ustiategi baten arabera, otsaila-maiatza arteko tartean. Alde horren arrazoia da, segur aski, ustiategi bakoitzean erditzeak modu desberdinean antolatzen dituztela.

Arkumeen bajak gaixotasunen (beherakoak, batez ere) edo erditzerakoan hiltzeagatik geratzen dira.

3 inkestaren arabera, hildako arkumean baimendutako hondakinen kudeatzaile bati ematen dizkiete, eta laugarren inkestaren arabera, udal-bilketarako zerbitzuari. Segur aski guztiek hondakinak jasotzeko zerbitzu berdinez ari dira; izan ere, udal-bilketarako-zerbitzua eta baimendutako hondakinen kudeatzailea aipatzen duten bi ustiategi udalerrri berdinean daude. Edonola ere, 4 ustiategiren arabera, horrek ez du kosturik ez diru-sarrerarik eragiten.

- Hildako ardiak eta ardi zaharrak: hildako ardiak 5 inkestatan aipatzen dira, baina badirudi ardi zaharrak eta ustiategian hildako ardiak nahasten dituztela (bajak, hilkortasuna).

Enpresa horietako bitan eman dituzten erantzunen arabera, badirudi ardien baja/hilkortasunari egiten diotela erreferentzia ardi zaharrei edo bieie baino (zaharrak + bajak); batek ematen duen birjartze-tasa txikiegia dela (% 2,86), ardiak baimendutako hondakinen kudeatzaile bati ematen dizkiela, ez direla baliatzen eta ustiategirako ez dutela kosturik ez diru-sarrerarik eragiten; besteak (% 15,58), ordea, adierazi du ardiak aldundiak kontratatutako enpresa bati ematen zaizkiela (udaberrian), horiek amaierako helmuga animalien xahuketa dela eta ez dutela kosturik ez diru-sarrerarik eragiten.

Bestalde, ustiategi batek biak desberdintzen ditu: ardi zaharrak sakrifikatzen entregatzen dira eta diru-sarrera dakarte; ustiategian hiltzen diren ardiak (erditzean, batez ere), aldiz, hondakinen kudeatzaile bati entregatzen dizkiote, eta ez dute kosturik ez diru-sarrerarik eragiten. Inkesta horretatik ateratako emaitzak oso altuak dira: Ardien totalaren % 30 zaharrak izateagatik eta % 7 hilkortasunagatik.

Galdetutako 5 ustiategi horietan aipatu dute kanpaina guztietan sakrifikatzen direla ardiak zaharrak izateagatik edo berritzeagatik (ustiategi bakoitzeko ardien totalaren % 15,55 batez beste; 4 ustiategietako ardi totalaren % 14,81). Berritze-tasa ohiz baino altuagoa eta baxuagoa den ustiategiak kontuan hartu gabe ere, batez bestekoa oso antzekoa izango litzateke (ustiategi bakoitzeko ardien totalaren % 14,67 batez beste; 2 ustiategietako ardi totalaren % 14,02)

Ardi zaharrak hiltegi sakrifikatzen dira, beraz, bitarteko garraiolari bati ematen zaizkio.

Bajengatik hiltzen diren ardiak (hilkortasuna) baimendutako hondakinen kudeatzaile bati ematen zaizkio, eta uste dute ez duela kosturik ez diru-sarrerarik eragiten.

- Artilea: 4 inkestetan adierazten da artilea kanpaina guztietan sortzen dela (3,55 kg/ardi batez beste ustiategi bakoitzean) (3,95 kg/ardi 4 ustiategien artean).

3 inkestetan artilea hilabete guztietan sortzen dela adierazten duten arren, beste batek adierazi du azpiproduktu hori ekainean sortzen dela; izan ere, ardiei udaberri-udan mozten zaie ilea, eta, beraz, ekainean espero dute artile gehien.

- 2 ustiategi handienetan (300-400 ardi/ustiategi), artilea ongarri/konpost gisa (artilearen % 74,9) erabiltzen da ustiategiaren barne, eta uste dute es dakarrela kosturik ezta diru sarrerarik;

- Antzeko tamaina duen ustiategi batean (350 ardi/ustiategi), artilea hondakinen kudeatzaile bati ematen zaio (artilearen % 23,4), eta horrek kostua dakar;
- Ustiategi txikienean (30 ardi), artilea ukuiluan gordetzen da, eta kostua eta arazoak dakartzala uste dute (sortutako artilearen % 1,6).


Laburpena:

- Ardi zaharrak eta ustiategian hildako ardiak (ardien % 13,2) eta ustiategiak hildako arkumeak (ekoiztutako arkumeen % 1,5), ikerketa honen baitan, ez dira giza elikadurarako gai diren elikagaitzat hartzen. Hortaz, ez dira elikagaien xahuketatzat hartzen. Batak zein besteak hondakinen kudeatzaileei eman ohi zaizkie.
- Gaztandegietan sortzen den esne-gazura (0,67 l esne-gazura/l ardi-esne) gizakientzako elikagaia da. Nolanahi ere, galdetutako gaztandegi bakarrean % 100ean animalien elikadurarako baliatzen da, eta, ondorioz, aurreko ikerketan ez bezala, ez litzateke elikagaien xahuketaren definizioan sartuko. Hala ere, izan liteke inkesta bakar bat nahikoa ez izatea adierazteko EAEn ez dagoela esne-gazuratik eratorritako elikagaien xahuketarik.

	GALERA	XAHUKETA
Esne-gazura	% 67	% 0
Hildako arkumeak	% 1,5	% 0
Ardi zaharrak eta hildako ardiak	% 2,21	% 0

Eskema

Ganadería




ABELTZAINZA SEKTOREKO GALERA-KOPURUAREN LABURPENA

Xahuketa abeltzaintza sektorean		% 4,07
Azpisektoreak:		
Haragitarako behi-azienda	% 4,91	
Esnetarako behi-azienda	% 0,75	
Ardi-azienda	% 54,26	% 1,29 esne-gazura aintzat hartu gabe
Oilo erruleak	% 3,77	
Gizentzeko txitak	% 2,31	
Xahuketa per capita	5,29 kg	

Eskema

Ganadería: resumen



5.1.C Arrantza eta akuikultura sektorea

Erauzketa-arrantza eta akuikultura azpisektoreen lagunean zeuden 36 ontzietatik, 14ren erantzunak jaso dira, baina sekretu-estatistikoa gordetzearren, espeziearen araberako analisia egin da; izan ere, erantzun gutxi eman dira, eta sekretu-estatistikoa errespetatuz gero, ezin da daturik atera.

Bakailao-ontzian izan ezik, erantzunak lortu dira azpisektore guztietatik.

PRODUCTOS	PRODUCCIÓN TOTAL KG.	PÉRDIDA (%)	DESPERDICIO (%)	KG. PERDIDA	KG. DESPERDICIO
Anchoa	13.284.905	0,72%	0,72%	96.201,04	96.201,04
Atún	136.031	0,00%	0,00%	3,72	0,02
Bonito	8.534.455	0,25%	0,25%	21.336,14	21.336,14
Merluza/Pescadilla	15.652.894	3,31%	0,00%	518.049,52	-
Salmonete	114.000	44,44%	0,00%	50.666,67	-
Sardina	2.997.833	0,75%	0,75%	22.483,75	22.483,75
Verdel + estornino	10.902.862	0,70%	0,60%	76.015,97	65.156,54
Resto de especies	71.583.901	0,00%	0,00%	-	-
	123.206.881			784.756,79	205.177,49

- Baztertzea/estandarrik ez betetzea

Galdetutako ontzien % 14k adierazi dute galerak dituztela gutxieneko kalitatea, neurria edo produktua merkaturatzeko funtsezko baldintzak ez betetzeagatik. Hori beren ekoizpen totalaren % 0,001 izango litzateke, eta, beraz, ez du kosturik ez diru-sarrerarik eragiten. Produktu horren amaierako helmuga elikagaien bankua izango litzateke.

- Ekoizte-prozesuan zehar baztertzea

Ontzien erdiek uste dute ontzian bertan egiten den prozesatzearen ondorioz galerak dituztela (erraiak, burua, azalak) eta galera horien % 11 itsasora botatzen da; beste % 89a, aldiz, balorizatutako enpresei ematen zaizkie, eta irina egiteko erabiltzen dute.

- Baztertzea/ ekoizpen soberakina

Ontzietako batek adierazi du gehiegizko kuota dela eta, bazterkinen ondoriozko galerak dituela; hala ere, ez du galeratzat hartzen; izan ere, horien amaierako helmuga familia edo arrantzako langileen ahaideak dira, eta, beraz, baliatu egiten dira.

- Baztertzea / Beste arrazoi batzuk, ustekabeko harrapaketa, arraste-arrantza

Galeren % 10 beste arrazoi batzuen ondorio da, hala nola, ustekabeko harrapaketa; hau da, espezie bat arrantzatzen den bitartean, baimenduta ez dagoen beste bat harrapatzea, edo, arrantza-mota batzuk erabiltzean (arrastea, adibidez), ohikoa da beste espezie batzuk arrantzatzea.

Arrain-haztegien kasuan, uste dute ekoizpenaren % 10 galtzen dutela uretako tenperaturarekin izandako arazoengatik, gaixotasunengatik, edo produktu hori baliatu ezin izateagatik.

SORTZEA ERAGITEN DUEN KAUSA	
Jasotze- edo ekoizte-prozesuan galtzea	% 59,00
Kalitate-estandarrik ez betetzea	% 30,78
BESTE BATZUK (nahi gabe harrapatzea, gaixotasuna, etab.)	% 10,06
Ekoizpen-soberakina	% 0,16
Kontsumo lehenetsiaren data	% 0,00
Legedia	% 0,00

KUDEAKETA MOTA	
ENPRESA BALORIZATZAILEARI ematea	% 67,00
BESTE BATZUK (itsasora botatzea)	% 19,00
HONDAKINEN KUDEATZAILEARI ematea	% 7,00
Salmenta	% 6,00
Ustiategian bertan baliatzea.	% 1,00

AMAIERAKO HELMUGA	
Animalien elikadura	% 52,20
Elikagaien bankua	% 31,00
Ez da baliatzen	% 10,80
Osagarriak ateratzea, balio erantsia	% 5,80
Beste batzuk (familia, lagunei ematea)	% 0,20

Laburpena:

Arrantza sektorean sortzen den xahuketa zuzenean lotuta dago harrapatutako kiloen totalarekin; izan ere, horren zati handi bat arrainaren produktuak dira (erraiak, buruak), eta harrapakinen arabera aldatzen dira. Baina galera hori ez da xahuketatzak hartzen; izan ere, galera horren ia % 90 erabiltzen dituzten irin-enpresei ematen zaie.

Antxoia da espezie guztietan xahuketa gehien sortzen duen espezia, hau da, sektore guztiaren xahuketa totalaren % 47; izan ere, kuotatik gora harrapatzen da ustekabeen, baina adierazi dute ez duela kosturik ez diru-sarrerarik eragiten. Horren atzetik berdela/betaundia dago, eta sektoreko xahuketaren % 31,8 sortzen du. Kasu honetan, arrazoi nagusia da baimendutako kuotatik gora harrapatzen dela, eta, kasu honetan, galera ez da baliatzen, baina ez da uste galera edo diru-sarrerarik eragiten duenik.

6. Ondorioak

NEKAZARITZA SEKTOREKO GALERA-KOPURUAREN LABURPENA

XAHUKETA NEKAZARITZA SEKTOREAN	% 4,07
Azpi-sektoreak:	
Laborantza estentsioa	% 1,36
<i>Zereala</i>	% 0,00
<i>Babarrunak</i>	% 5,79
<i>Patata</i>	% 4,04
<i>Erremolatxa</i>	% 0,00
<i>Baratzeak</i>	% 8,62
<i>Aire zabalean</i>	% 9,60
<i>Negutegia</i>	% 1,30
Mahatsondoa	% 2,50
Sagarak	% 2,50
Olibadia	% 2,50

ABELTZAINITZA SEKTOREKO GALERA-KOPURUAREN LABURPENA

XAHUKETA ABELTZAINITZA SEKTOREAN	% 4,07	
Azpi-sektoreak:		
Haragitarako behi-azienda	% 4,91	
Esnetarako behi-azienda	% 0,75	
Ardi-azienda	% 54,26	% 1,29 esne-gazurarik gabe
Oilo erruleak	% 3,77	
Gizentzeko txitak	% 2,31	
Xahuketa per capita	5,29 kg	

ARRANTZA SEKTOREKO GALERA-KOPURUAREN LABURPENA

XAHUKETA ARRANTZA SEKTOREAN	% 2,55
-----------------------------	--------

I. eranskina: galdetegi ereduak

NEKAZARITZA GALDETEGIA**1.- ESTABLEZIMENDUAREN EDO USTIATEGIAREN DATUAK**

Ustiategiaren edo establezimenduaren (ekoizpen-planta) eta galdetegi bete duen pertsonaren datuak.

ESTABLEZIMENDUAREN DATUAK								
JARDUERA (adierazi labore nagusia)	NAGUSIKI NEKAZARIA (BAI/EZ)	IZEN KOMERTZIALA EDO USTIATEGIAREN TITULARRAREN IZEN-ABIZENAK	IFK edo TITULARRAREN NANa	SOZIETATE MOTA	HELBIDEA	UDALERRIA	FAKTURAZIOA (KANPAINAKO SALMENTA OSOA)	LANGILE KOPURUA

ERANTZUN DUEN PERTSONAREN DATUAK		
HARREMANETARAKO	KARGUA	TELEFONO-ZENBAKIA

2.- EKOIZPEN-DATUAK ETA USTIATEGIAREN EDO ESTABLEZIMENDUAREN TAMAINA

Urteko ekoizpen-bolumenari eta ekoiztutako produktu nagusien helmugari buruzko informazioa

PRODUKTUAREN IZENA	AZALERA (ha)	EKOIZPENA (KG)	EKOIZPEN-SISTEMA	EKOIZPEN-EREDUA	UZTA BILTZEKO METODOA	SALMENTAREN HELMUGA	SALMENTA NAGUSIAREN HELMUGA

3.- ELIKAGAIEN XAHUKETAREN ETA AZPIPRODUKTUEN DATUAK

Atal honetan eskatzen den informazioak ekoizte-prozesuan eta/edo eraldatze-prozesuan sortzen diren xahuketaren eta/edo azpiproduktuen ingurukoa da, materia ekoiztu edo jasotzen denetik azken produktua sortzen denera arte, urtean zehar. (Adibidez: bildu ez den uzta, meteorologiagatiko galerak, soberakinak, egoera txarrean dauden produktuak, saldu diren produktuen soberakinak, bigarren mailako materialak eta substantziak, etab.)

PRODUKTUA	AZPIPRODUKTUEN DATUAK		
	AZPIPRODUKTU/XAHUKETA MOTA	XAHUKETA KOPURUA AZPIPRODUKTUA KG/urte	EKOIZPENAREN URTAROKOTASUNA (MARKATU X BIDEZ HILABETEAK)

SORTZEA ERAGITEN DUEN KAUSA	SORTZEAREN MAIZTASUNA	KUDEAKETA MOTA	KUDEAKETAREN KOSTUA/MOZKINA	AMAIERAKO HELMUGA	AZPIPRODUKTUAREN/XAHUKETAREN KUDEAKETAREKIN LOTUTAKO ARAZOAK

4.- ELIKAGAIEN XAHUKETA KUDEATZEN AURREKO EDO EGUNGO ESPERIENTZIA

Atal honetan jakin nahi dugu elikagaien xahuketa (giza kontsumorako gai diren eta baztertzen diren elikagaiak) kudeatzen aurreko edo egungo esperientziak egon dira.

ZEIN/ZEINTZUK	ESPERIENTZIA ONA	OHARRAK
	BAI/EZ	

ABELTZAINZA GALDETEGIA

1.- ESTABLEZIMENDUAREN EDO USTIATEGIAREN DATUAK

Ustiategiaren edo establezimenduaren (ekoizpen-planta) eta galdetegia bete duen pertsonaren datuak.

ENPRESAREN DATUAK								
<i>JARDUERA (adierazi ekoizpen nagusia)</i>	<i>NAGUSIKI NEKAZARIA (BAI/EZ)</i>	<i>IZEN KOMERTZIALA EDO USTIATEGIAREN TITULARRAREN IZEN-ABIZENAK</i>	<i>IFK edo TITULARRAREN NANA</i>	<i>SOZIALTATE MOTA</i>	<i>HELBIDEA</i>	<i>UDALERRIA</i>	<i>FAKTURAZIOA (KANPAINAKO SALMENTA OSOA)</i>	<i>LANGILE KOPURUA</i>

ERANTZUN DUEN PERTSONAREN DATUAK		
<i>HARREMANETARAKO</i>	<i>KARGUA</i>	<i>TELEFONO-ZENBAKIA</i>

2.- EKOIZPEN-DATUAK ETA USTIATEGIAREN EDO ESTABLEZIMENDUAREN TAMAINA

Urteko ekoizpen-bolumenari eta ekoiztutako produktu nagusien helmugari buruzko informazioa

<i>PRODUKTUAREN IZENA</i>	<i>AZALERA (ha)</i>	<i>EKOIZPENA (KG)</i>	<i>EKOIZPEN-SISTEMA</i>	<i>EKOIZPEN-EREDUA</i>	<i>UZTA BILTZEKO METODOA</i>	<i>SALMENTAREN HELMUGA</i>	<i>SALMENTAREN HELMUGA NAGUSIA</i>

PRODUKTUAREN IZENA	EKOIZPENEKO ABERE KOPURUA (URTE OSOA)	URTEKO EKOIZPENA (KG/LITRO/UNITATE)	UNITATEA	EKOIZPEN-EREDUA	JASOTZEKO METODOA	SALMENTAREN HELMUGA	SALMENTA NAGUSIAREN HELMUGA

3.- ELIKAGAIEN XAHUKETAREN ETA AZPIPRODUKTUEN DATUAK

Atal honetan eskatzen den informazioak ekoizte-prozesuan eta/edo eraldatze-prozesuan sortzen diren xahuketaren eta/edo azpiproduktuen ingurukoa da, materia ekoiztu edo jasotzen denetik azken produktua sortzen denera arte, urtean zehar. (Adibidez: bildu ez den uzta, meteorologiagatiko galerak, soberakinak, egoera txarrean dauden produktuak, saldu diren produktuen soberakinak, bigarren mailako materialak eta substantziak, etab.)

PRODUKTUA	AZPIPRODUKTUEN DATUAK		
	AZPIPRODUKTU/XAHUKETA MOTA	XAHUKETA KOPURUA	EKOIZPENAREN URTAROKOTASUNA
		AZPIPRODUKTUA	(MARKATU X BIDEZ HILABETEAK)
		KG/urte	

SORTZEA ERAGITEN DUEN KAUSA	SORTZEAREN MAIZTASUNA	KUDEAKETA MOTA	KUDEAKETAREN KOSTUA/MOZKINA	AMAIERAKO HELMUGA	AZPIPRODUKTUAREN/XAHUKETAREN KUDEAKETAREKIN LOTUTAKO ARAZOAK

4.- ELIKAGAIEN XAHUKETA KUDEATZEN AURREKO EDO EGUNGO ESPERIENTZIA

Atal honetan jakin nahi dugu elikagaien xahuketa (giza kontsumorako gai diren eta baztertzen diren elikagaiak) kudeatzen aurreko edo egungo esperientziak egon dira.

ZEIN/ZEINTZUK	ESPERIENTZIA ONA	OHARRAK
	BAI/EZ	

ARRANTZA GALDETEGIA

1.- ESTABLEZIMENDUAREN EDO USTIATEGIAREN DATUAK

Ustiategiaren edo establezimenduaren (ekoizpen-planta) eta galdetegia bete duen pertsonaren datuak.

ENPRESAREN DATUAK									
ARRANTZA MOTA	AZPISEKTOREA	MODALITATEAK	SOZIETATE-IZENA	IFK edo TITULARRAREN NANA	SOZIETATE MOTA	HELBIDEA	UDALERRIA	FAKTURAZIOA (KANPAINAKO SALMENTA OSOA)	LANGILE KOPURUA
Erauzketa-arrantza Akuikultura									

ERANTZUN DUEN PERTSONAREN DATUAK		
HARREMANETARAKO	KARGUA	TELEFONO-ZENBAKIA

2.- EKOIZPEN-DATUAK ETA USTIATEGIAREN EDO ESTABLEZIMENDUAREN TAMAINA

Urteko ekoizpen-bolumenari eta ekoiztutako produktu nagusien helmugari buruzko informazioa

AZKEN PRODUKTU NAGUSIA/AK	LEHORRERATUTAKO AZKEN PRODUKTUA (tm/urte)	SALMENTAREN HELMUGA	SALMENTA NAGUSIAREN HELMUGA

3.- ELIKAGAIEN XAHUKETAREN ETA AZPIPRODUKTUEN DATUAK

Atal honetan eskatzen den informazioak ekoizte-prozesuan eta/edo eraldatze-prozesuan sortzen diren xahuketaren eta/edo azpiproduktuen ingurukoa da, materia ekoiztu edo jasotzen denetik azken produktua sortzen denera arte, urtean zehar. (Adibidez: bildu ez den uzta, meteorologiagatiko galerak, soberakinak, egoera txarrean dauden produktuak, saldu diren produktuen soberakinak, bigarren mailako materialak eta substantziak, etab.)

PRODUKTUA	AZPIPRODUKTUEN DATUAK		
	AZPIPRODUKTU/XAHUKETA MOTA	XAHUKETA KOPURUA AZPIPRODUKTUA KG/urte	EKOIZPENAREN URTAROKOTASUNA (MARKATU X BIDEZ HILABETEAK)

SORTZEA ERAGITEN DUEN KAUSA	SORTZEAREN MAIZTASUNA	KUDEAKETA MOTA	UDEAKETAREN KOSTUA/MOZKINA	AMAIERAKO HELMUGA	AZPIPRODUKTUAREN/XAHUKETAREN KUDEAKETAREKIN LOTUTAKO ARAZOAK

4.- ELIKAGAIEN XAHUKETA KUDEATZEN AURREKO EDO EGUNGO ESPERIENTZIA

Atal honetan jakin nahi dugu elikagaien xahuketa (giza kontsumorako gai diren eta baztertzen diren elikagaiak) kudeatzen aurreko edo egungo esperientziak egon dira.

ZEIN/ZEINTZUK	ESPERIENTZIA ONA	OHARRAK
	BAI/EZ	